

# Bakaikuko hizkera

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON\*

**B**urunda haraneko lehen herria dugu Bakaiku, Iruña eta Gasteiz lotzen dituen autobidearen ertzean, norabide horretan. Etxarri-Aranatzekin egiten du muga ekialdean, Gipuzkurekin iparraldean, Urbasa mendiarekin hegoaldean eta harankide den Iturmendirekin mendebaldean.

Bizirik iraun du euskarak joan den mende osoan zehar, nahiz eta bigarren erdian atzerakada izugarria jasan. Hala ere, bertako hizkerari eutsi diote egun hirurogei urtetik gora duten herritarrek, eta horietako batekin, 74 urteko **Pedro Miguel Kintana Ondarrarekin**, ikasi eta aztertu ahal izan dut *bakaikuera*.

Hizkera honek muga nabaria ezartzen du aldameneko Sakana erdialdearekiko, bere ezaugarriak aztertzerakoan ikusi ahal izango dugun moduan, baina era berean, zubi lanak egiten ditu aipatu eremukoa eta Burundakoaren artean. Bere garrantzia begibistakoa da, beraz, interes handikoa dialektologiaren ikuspegitik, Koldo Mitxelenak berak aipatu zuen bezala:

“Valdría la pena de comprobar la exactitud de algunos términos de interés muy especial recogidos en Bacáicoa (...). Cada vez tengo más motivos para pensar que, en materia de léxico vasco, son ciertas zonas del oeste de Navarra, mal estudiadas, las que nos pueden deparar mayores sorpresas” (Euskera, 1962, 58).

Aztergai izan ditut, bestalde, Bakaikuko euskararen inguruan hainbat ikertzailek egindako lanak, hala nola, Francisco Ondarra Erdozia bakaikuarren “Voces vascas de Bacáicoa” (RSVAP, 1965), Iñaki Gaminderen “Aditza Ipar Goi Nafarreraz” (UEU, 1985), Ana Maria Echaide Itarteren “El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)” (Eusko Ikaskuntza, 1989), Pedro Yrizarren “Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional” (Euskaltzaindia, 1992), Koldo Zuazo Zelaieta eibartarraren “Burundako hizkera” (ASJU XXVIII, 1995, 297-364) eta Iñaki Mundiñano Larraza etxarriarraren “Bakaikuko euskara” lan argitaragabea.

Bestalde, Bakaikuko azken hamarkadako zenbait datu soziolinguistiko azalduko ditut jarraian:

\* Ertainetako irakaslea.

– *Sakanako euskarari buruzko ezagutza datuak. 1996ko zentsua. (2 urtetik gorakoena).*

Guztira	Ulertu		Hitz Egin		Irakurri		Idatzi	
	Ongi	Nekez	Ongi	Nekez	Ongi	Nekez	Ongi	Nekez
350	%67,1	%23,4	%51,4	%24,9	%30	%20,9	%24,3	%17,4
350	235	82	180	87	105	73	85	61

– *Euskararen erabileraren neurketaren emaitzak: (Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzutik hartutako datuak)*

	Haur (0-14)		Gazt (15-24)		Held (25-64)		Zahar (65-...)		Guzt	
	Eusk.	Erd.	Eusk.	Erd.	Eusk.	Erd.	Eusk.	Erd.	Eusk.	Erd.
1990	%33,33	%66,66		%100	%10,52	%89,47	%27,27	%72,72	%15,27	%84,72
1991		%100		%100	%13,15	%86,84	%27,27	%72,72	%11,11	%88,88
1992	%25	%75		%100		%100	%27,27	%72,72	%8,33	%91,66

Ikusten denez, ezagutzaren datuak erabilerarenak baino itxaropentsuagoak dira, gaztelera baita, dudarik gabe, kalean erabiltzen den hizkuntza. Antzeko zerbait esaten digu Iñaki Mundiñanok duela bost urte buruturiko bere lan argitaragabeen: “1991ko erroldaren arabera bakaikuarren %51,6-k daki euskaraz. Kaleko hizkuntza gaztelera da. Euskara, erabiltzekotan, 50 urtetik gorakoek egiten dutela esan genezake. Kontutan hartu behar da 46-65 urte artekoen % 57ak dakiela euskaraz, eta 66 <koen artean % 77,5-ak. Egia da haur gehienak D erudian daudela eta euskaldunak direla (% 82,5-a) baina dakiten euskara, batua da eta herrikoa galtzear dago. Oso gazte gutxi daki bertako euskara (badakit 2 behintzat badirela)”.

Eta ez dirudi azken bost urte hauetan gehiegi aldatu direnik gauzak, ez euskararen erabilerari dagokionez, ez herriko hizkeraren ezagutza kontuan hartuz gero. Horrela beraz, lan honek *bakaikuera*-ren ezaugarriak jaso eta aztertzeaz gain, bertako seme-alabei arbasoen hizkera gordetzeko lagungarri suertatzea nahi izango luke, modu horretan betiko *bakaikuera* jaun eta jabe izan dadin herriko txoko guztietan, hemendik aurrera egingo diren erabilera neurkera berrietan horrela agertuz.

## EZAUGARRI FONETIKO-FONOLOGIKOAK

### Bokalei dagozkien ezaugarriak

- *-a + -a > -ia disimilazioa.* Lexema edo hitz oina *-a* bokalaz amaitu eta mugatzaile singularra eransten zaionean, ondorengo bilakabidea gertatzen da *bakaikueran*: *-a + -a > \*-ea > -ia*

*euskera + -a > \*euskerea > euskeria*

*gitarra + -a > \*gitarrea > gitarria*

*fiesta + -a > \*fiestea > festia*

*banda + -a > \*bandea > bandia*

*eliza + -a > \*elizea > elizia*

*plaza + -a > \*plazea > plazia*

*aldapa + -a > \*aldapea > aldapia*

*denbora + -a > \*denborea > denboria*

*bezpera* + -a > \**bezpera* > *bezperia* ('aurreko eguna', ez elizako saioa: *bezpeak*)

*alaba* + -a > \**alabea* > *alabia*

*buelta* + -a > \**bueltea* > *bueltia*

*punta* + -a > \**puntea* > *puntia*

*meza* + -a > \**mezea* > *mezia*

*domeka* + -a > \**domekea* > *domekia*

*gauza* + -a > \**gauzea* > *gauzia*

*aizpa* + -a > \**aizpea* > *aizpia*

Salbuespen bakarra aurkitu dut, eta burutzapen honetan ohikoa den bilakabidea suertatzen da: -a + -a > -a

*ama* + -a > *ama*

Bestalde, leku-denborazkoak ez diren deklinabideko kasu guztietan gertatzen da aipatu disimilazioa singularrean, eta baita erakusleekin sortutako sandhietan ere:

*alaba* + *arrek* > *alabiarrek*

*plaza* + o(r)i > *plazioi*

*eliza* + *ura* > *eliziura*

*domeka* + *artan* > *domekiartan*

*gitarra* + *orrek* > *gitarriorrek*

Eta toponimian ere horrelako burutzapenak jaso dituzte NTM-n: *aizkibelgo bidía*, *aldéko sarréria*, *auzbideko kantéria*, *epelchikiko sarréria*, *galtzámúsuko langía*, *ibarbezgo langía*, *iturboxkó errékia*, *lixuberrizárgo espáldia*, *migelramónen chozía*, *michelaundiko errékia*, *sausóroko errékia*, *sanbenítoko errékia*, *zulámpeko errékia*.

- **Gainerako bokal elkarketen emaitzak.** -e + -a > -[j]a ; -e + -ak > -[j]ek: Lexema edo hitz oina -e bokalaz amaitu eta mugatzailea eransten zaionean, aipatu bokala itxi egiten da eta bokal erdia bihurtu, horrela [ja] gorunzko diptongoa sortzen delarik, Sakana erdialdeko Arbizun, Dorraon, Unanun eta Arruazun bezala:

*etxe* + -a > *etxia*

*seme* + -a > *semia*

*traste* + -a > *trastia*

*luze* + -a > *luzia*

Eta pluraleko morfema eransten zaionean, berriz, bukaerako bokala ixteaz gain, asimilatu egiten da morfemako bokal irekia: *etxiek* (< etxe + -ak), *semiek* (< seme + -ak), *trastiek* (< traste + -ak), *luziek* (< luze + -ak), ...

-i + -a > -iya ; -i + -ak > -iyek: Lexemaren bukaeran -i bokala dugunean, mugatzailea eransterakoan [j] kontsonante sabaiko igurzkari ahostunaren epentesia gertatzen da, Sakana erdialdeko Arbizun, Dorraon, Unanun eta Arruazun bezala:

*mendi* + -a > *mendiya* ; *mendi* + -ak > *mendiyek*

*idi* + -a > *idiya* ; *idi* + -ak > *idiyek*

*begi* + -a > *begiya* ; *begi* + -ak > *begiyek*

*ardi* + *-a* > *ardiya* ; *ardi* + *-ak* > *ardiyek*

*-o* + *-a* > *-[w]a* ; *-o* + *-ak* > *-[w]ek*: Hitz oina *-o* bokalez amaitzen denean, mugatzerakoan itxi egiten da eta bokal erdia bihurtu, horrela *[wa]* gorunzko diptongoa sortzen delarik, *-i* bokalarekin gertatzen zenaren antzera, Sakana erdialdeko Arbizun, Dorraon, Unanun eta Arruazun bezala:

*mando* + *-a* > *mandua* ; *mando* + *-ak* > *manduek*

*zulo* + *-a* > *zulua* ; *zulo* + *-ak* > *zuluek*

*oilo* + *-a* > *oilua* ; *oilo* + *-ak* > *oiluek*

*baso* + *-a* > *basua* ; *baso* + *-ak* > *basuek*

*-u* + *-a* > *-uba* ; *-u* + *-ak* > *-ubek*: Atzeko eta goiko bokala, *-u*, dugunean hitz oinaren amaiera, mugatzailea eransterakoan *[b]* kontsonante ezpainetako herskari ahostunaren epentesia jasaten du, Sakana erdialdeko Arbizun, Dorraun, Unanun eta Arruazun bezala:

*esku* + *-a* > *eskuba* ; *esku* + *-ak* > *eskubek*

*katu* + *-a* > *katuba* ; *katu* + *-ak* > *katubek*

*mundu* + *-a* > *munduba* ; *mendu* + *-ak* > *mundubek*

*negu* + *-a* > *neguba* ; *negu* + *-ak* > *negubek*

Eta aipatu disimilazio eta epentesiak modu berean gertatzen dira hitzaren barruan eta baita erakusleekin sortzen diren sandhietan:

*goizien* (< goizean)

*gayenien* (< gehienean)

*atsuarrek* (< atso hark)

*etxiura* (< etxe hura)

*momentubontan* (< momentu honetan)

*zuluartan* (< zulo hartan)

*zuriyura* (< zuri hura)

*gizajuoi* (< gizajo hori)

*mundubau* (< mundu hau)

• */e/ bokalaren itxiera*: *-e* + *C* + *-o* > *\*-eo* > *-[j]o*. Hauxe dugu bilakabidea */e/* eta */o/* bokalen artean kontsonante erorkorra, */r/* eta */g/* bereziki, dagoenean. Ingurunea ia beti *-(e)ro* atzizki eratorlea eta *-ago* konparatzailearena da. Ikusten denez, berriro gorunzko diptongoaren sorrera dugu emaitza moduan:

*gio* (< *\*geo* < gero)

*egunio* (< *\*eguneo* < egunero)

*merkio* (< *\*merkeo* < merke(a)go)

*luzio* (< *\*luzeo* < luze(a)go)

*-e* + *h* + *-o* > *-iyo-*: Berriro ere *-e* bokalaren itxiera gertatzen da, baina zintzurereko igurzkaria sabaikaritzen delarik:

*biyor* (< behor)

*liyor* (< lehor)

*iyoy* (< eho)

-e + C + -a > -\*ea < -[j]a: Bilakabide hau deklinabideko adlatibo kasuaren morfema kontsonantez edo -e bokalaz bukatutako lexemei erantzen zaienean gertatzen da:

*atzia* (< \*atzea < atzera)

*batia* (< \*batea < batera)

*aurria* (< \*aurrea < aurrera)

*etxia* (< *etxea* < etxera) Zenbaitetan badirudi bilakabidearen bigarren urratsean dagoela oraindik burutzapena. Horregatik ez diot asteriskoa jarri.

*Bat* zenbatzailearekin suertatzen diren sandhietan, berriz, ez da -e bokala ixten, Etxarri-Aranatzen gertatzen den bezala:

*urte bat* (Bakaiku),

*urtiat* (Etxarri-Aranatz)

*etxe bat* (Bakaiku),

*etxiat* (Etxarri-Aranatz)

*seme bat* (Bakaiku),

*semiat* (Etxarri-Aranatz)

- *Hasierako e- bokalaren itxiera eta ondorengo kontsonantizazioa.* Bokal arteko kontsonante erorkorrak direnean, /d/-/g/-/r/, aipatu kontsonanteak erori ondoren, hasierako /e/ bokala itxi egiten da eta gero kontsonantizatu, hau da, /y/ sabaiko igurzari ahostuna bihurtu. ‘Egosi’ eta ‘erosi’ aditzak berdin burutzen dira Bakaikuko hizkeran bilakabide hau dela eta, Sakana erdialdeko Arbizun eta Dorraon gertatzen den moduan. Etxarri-Aranatzen, Unanun, Lakuntzan eta Uhartar-Arakilen, aldiz, ‘erosi’ aditzaren kasuan gertatzen da hemen azaltzen den bilakabidea eta ez ‘egosi’ aditzarekin. Hauexek ditugu Bakaikuko burutzapenak:

*yakusi* (< \*iakusi < \*eakusi < eraku(t)si)

*yosi* (< \*iosi < \*eosi < erosi/egosi)

*yan* (< \*ian < \*ean < edan/eraman)

*yantzi* (< \*iantzi < \*eantzi < erantzi)

*yon* (< \*ion < \*eon < egon)

*yantzun* (< \*iantzun < \*eantzun < erantzun)

*yaztun* (< \*iaztun < \*eaztun < eraztun)

*yozein* (< \*iozein < \*eozein < edozein)

*yuntsi* (< \*iuntsi < \*euntsi < \*eauntsi < erauntsi). Ondarrak *yutsin* jaso zuen.

*yainun* (< \*iainun < \*eainun < \*eraineun > \*eraneun > herenegun). Ondarrak *yaneun*.

*yorri* (< \*iorri < \*eorri < herorri)

*yorrek* (< \*iorrek < \*eorrek < herorrek)

- /ei/ → /ail/ *diptongo irekiera.* Aipatu bilakabidearen emaitzak jaso ditut *bakaikueran* eta ez aldameneko Sakana erdialdean gertatzen den /ai/ → /ei/ itxiera. Burunda osoan dugu oso hedatua bilakabide hau, eta oso kasu gutxitan (*aizien* bakarrik herri guztietan; Arruazun, hala ere, *eizien*) ematen da aldameneko Sakana erdialdean:

*mintaiya* (< mintegia)

*aizien* (< ehizan)

*besolai* (< besalei). Ondarrak jaso.

*dai* (< dei). Ondarrak jaso.

*errainu* (< erreinu). Ondarrak jaso.

*nafarrai* (< nafarleri)  
*tai* (< tei < tegi). Ondarrak jaso.  
*gayo* (< gehiago), *gayenien*, *gayokua*, ...

Eta hurrengo guztiak NTM-n agertzen diren toponimoak ditugu:

*tailayáko chúlo* (< teileriako zulo)  
*baztarríkan taizár* (< baztarríkren tegi zahar)  
*larrátzan taizár* (< larratzaren tegi zahar)  
*mintái* (< mintegi)  
*chorítai* (< txoritegi)

Bestalde, */ail/* → */eil/* diptongo itxiera, ez da gertatzen (Mundiñanok aukerakoa dela esaten du bere lanean, eta agian etxarriarrek hitz egiterakoan horretarako joera erakutsiko luke aukera honek, askotan nabaritu baitiot nik horrelakoak nire informatzaileari) Bakaikuko hizkeran, eta oso hedatua dugu, berriz, Sakana erdialdean:

<i>bai</i> (Bakaiku)	<i>bei</i> (Sakana erdialdea)
<i>jai</i> (Bakaiku)	<i>jei</i> (Sakana erdialdea)
<i>mai</i> (< mahai, Bakaiku)	<i>mei</i> (Sakana erdialdea)
<i>nai</i> (< nahi, Bakaiku)	<i>nei</i> (Sakana erdialdea)
<i>itaina</i> (< izain, Bakaiku)	<i>izein</i> (Sakana erdialdea)
<i>naiz</i> (< naiz/nahiz, Bakaiku)	<i>neiz</i> (Sakana erdialdea)
<i>lasai</i> (Bakaiku)	<i>lasei</i> (Sakana erdialdea)
<i>Bakaiku</i> (Bakaiku)	<i>Bakeiku</i> (Sakana erdialdea)
<i>txertxai</i> (Bakaiku)	<i>txertxei</i> (Sakana erdialdea)
<i>nolabait</i> (Bakaiku)	<i>nolabeitt</i> (Sakana erdialdea)

Hala eta guztiz ere, salbuespen moduan, ondorengo burutzapena jaso dut nik Bakaikun: *useiya* (< usaina)

- */eul/* → */aul/ bilakabidea*. Oso maiz gertatzen den bilakabidea dugu haxe Nafarroa osoan: Sakana erdialdea, Ultzama (O. Ibarra 1995, 153), Aezkoa (I. Camino, 1997, 315) eta Hego Goi Nafarrerako Gares, Oltza eta Goñi (F. Ondarra, 1982). Bakaikun, eta Burundan ere bai, gertatzen dira halako burutzapenak, baina ez aipatu ditudan eremuetan adina:

*auriya* (< euria)  
*auliya* (< eulia), baina *eltxua* (> eltxoa).  
*aulinabar* (< eulinabar). Ondarrak jaso.  
*laurriya* (< neurria)  
*berraun* (< berrehun), baina *egun* (< ehun), *iruregun*, *lauregun*, *bostegun*, ...  
*auski* (eutsi)  
*zauken* (< zeukan). Mundiñanok jaso.

Beste burutzapen hauetan mantendu egiten da jatorrizko diptongoa Bakaikun, eta aipatu berri dugun bilakabidea gertatzen da, aldiz, Sakana erdialdean eta gainerako Nafarroako eremuetan:

<i>euskiaz</i> (< euskeraz, Bakaiku)	<i>auskias</i> (Sakana erdialdean)
<i>egun</i> (< ehun, Bakaiku)	<i>aun</i> (Sakana erdialdean)
<i>legun</i> (< leun, Bakaiku)	<i>laun</i> (Sakana erdialdean)

- /ul/ → /aul/ *diptongaketa*. Kasu batean baino ez bada ere, suertatzen da bilakabide hau Bakaikuko hizkeran, Etxarri-Aranatz eta Ergoienan bezala:

*autzi* (< utzi < eutzi ??). K. Izagirrek ere jaso zuen Altsasan.

Ez da gertatzen Bakaikun Sakana erdialdeko /ol/ → /aul/ bilakabidea:

<i>ondo</i> (Bakaiku)	<i>aungi</i> (Sakana erdialdea)
<i>ospel</i> (Bakaiku)	<i>auspel</i> (Sakana erdialdea)
<i>txixontzi</i> (Bakaiku)	<i>pixauntzi</i> (Sakana erdialdea)

- *Monoptongaketak*. Jatorrizko diptongoak monptongatu egiten dira hainbat burutzapenetan, ondoko Sakana erdialdeko hizkeretan bezala:

/ei/ → /i/ bihurtzen da kasu batean baino ez bada ere Bakaikun: *bintzat* (< behintzat). Sakana erdialdean *bintzet* / *mintzet* eta *yozin* / *lyezin* / *oozin* (< edozein) burutzapenak ditugu. Bakaikun, bigarren kasu hau *yozein* burutzen da.

/aul/ → /ol/ bihurtzen da jarraian aipatuko ditudan hiru kasuetan gutxienez, Sakana erdialdean bezala:

*arrantza*<sup>1</sup> (< arraultza). Uhartre-Arakil, Arruazu eta Lizarragan *arrutze*.

*iyote*<sup>2</sup> (< ihaute)

*intxor* (< intxaur)

*aul* → /al/ *bilakabidea*, gutxienez hurrengo hiru burutzapenetan:

*Jangoiko* (< Jaungoiko).

*alkiya*<sup>3</sup> (< aulkia)

*lanbata* (< larunbata). Ondarrak ere horrela jaso zuen.

*aul* → /ul/ eta *leul* → /ul/ *bilakabideak*. Lehenari dagokionez, bi burutzapen jaso ditut (ez da monoptongatzen *itaurreko* burutzapena, *itturriko* Sakana erdialdean) eta bat bakarra bigarrenaren kasuan:

*yuntsiya* (< erauntsia)

*baruik* (< baraurik)

*yuntziya*<sup>4</sup> (< eultzia)

- /ol/ *bokalaren itxiera*. /ol/ bokala itxi egiten da, /u/ bihurtzeraino, kontsonante hortzobietako sudurkari ahostunaren aurrean, ondorengo bilakabidea burutuz: *o* → *u* / \_\_ *n*

*nun* (< non), *nundi*, *nungo*, *nunbait*, *nunai*, ...

*yuntzi* (< ontzi)

<sup>1</sup> MITXELENA, K. (1977, 96): "A.-nav. guip. lab. ronc. sul. *arraultza*, *arraul(t)ze* 'huevo' ... aezc. *arroitze*, a.-nav. b.-nav. sal. *arrutze*, guip. Echarri *arrantza*, cf. alav. *arronzobi* ...".

<sup>2</sup> MITXELENA, K. (1977, 97): "B.-nav. lab. *i(h)aute*, *ihauteri*, *ihautiri* 'carnaval', sul. *ihauti(ri)*, aezc. *igautere*, b.-nav. guip. *in(h)auteri*, a.-nav. ronc. *ĩnaute*: a.-nav. sal. *iote*, a.-nav. *ĩnoteri*, a.-nav. guip. (en compuestos) *-ĩnute*".

<sup>3</sup> MITXELENA, K. (1977, 95): "A.-nav. b.-nav. guip. lab. vizc. Cigoitia *alk(h)I* 'silla, banco' (ya LeiÇ.), b.-nav. *arki*: guip. Goyeri vizc. *aulki* ...".

<sup>4</sup> MITXELENA, K. (1977, 99), *eu* > *u* erredukzio moduan aurkezten digu, baina Etxarriko burutapena ez da zuzena, *autzi* esaten baita: "A.-nav. Guip. *eultze*, a.-nav. sal. *eultzi* (> aezc. *aultzi*) 'parva', a.-nav. *eulzitu* 'trillado': a.-nav. b.-nav. guip. Echarri *ul(t)zi* 'parva', b.-nav. *ulzitu* 'trillado' (Pampl. 1609, 3, *ulzitu*): ronc. *eltzu* y *eltzu(ka)tu*".

- */el bokalaren irekiera*. Hiru burutzapen baino ez baditut jaso ere, */el bokala ireki egiten da, /a/ bihurtzen da beraz, kontsonante dardarkaria eta albokariaren aurrean:*

*baztar* (< bazter)

*asarre* (< haserre)

*alkar* (< elkar). *Alkartzen gindan* jaso zuen Mundiñanok.

- *-a + -e → -a bilakabidea*. Erlatiboizko *-en* morfema eta konplati-boetako *-ela /a/ bokalaz bukatutako aditz laguntzaileei eransterakoan, Etxarri-Aranatzen eta Ergoienan<sup>5</sup> bezala, aipatu bilakabidea gertatzen da Bakaikuko hizkeran ere:*

*etor dana, etor dala, ...* baina zenbatzaile orokorraren kasuan berriz, *dena*.

- *Sandhietako burutzapenak*. Erakusleekiko loturak ditugu kontuan izan beharrekoak, eta hauetan */j/* eta */b/* kontsonanteen epentesiak suertatzen dira gehienbat:

*momentubontan* (< momentu honetan)

*bizimodubure* (< bizimodu hura). Zuazok jaso.

*soinúbeik* (< soinu haiek). Zuazok jaso.

*zuriyura* (< zuri hura). Zuazok jaso.

*auriyarrekin* (< euri harekin). Zuazok jaso.

*amorri* (< ama horri) *kendu jei semia*.

*plazoi* (< plaza hori)

*etxiura* (< etxe hura) *oso polita jok*.

- *-oi / -on<sup>6</sup> amaiera duten burutzapenak*. Mitxelenak esaten duen moduan, jatorriz */-on/-ez* bukatutako mailegu zaharretan */-oi/* hartzen da Bakaikuko hizkeran eta baita Sakana erdialdean ere: *arrazoi, sasoi*. Baina Bakaikun *mato*, Etxarrin *matoi* esaten dena.

Eta era berean, esan daiteke mailegu hurbilagoetan, modernoagoetan, */-on/* mantendu egin dela:

<sup>5</sup> Horrela ageri zaigu EHHA-n Dorraon: *fán zan illa, fán dan illén*.

<sup>6</sup> MITXELENA, K. (1977, 147): "De ant. *-on-* más vocal anterior hay numerosos ejemplos, en buena parte préstamos, que suponen *\*-one*. a) (...) b) En palabras de más de dos sílabas, los resultados han sido: vizc. ant. *-oe-* (posiblemente *-ôe*) y *-oa-* ante algunos sufijos, mod. *-oe-*, *-ue-*, *-oi-*, guip. mer. (y a.-nav. septentrional, al menos en parte) *-oi-*, (...) c) En palabras que en cast. Terminan en *-ión* (oración, etc), se observan las siguientes correspondencias: (...) El nombre de la 'razón' ha sido tratado generalmente como los del apartado b): vizc. ant. *errazôe* (...), mer. *errazoi* (nom. sing. *errazoya*), a.-nav. guip. *errazoi, arrazoi*, a.-nav. Baztán. d) (...) e) En a.-nav. Merid., al menos en el caso de Elcano y otras zonas, lo mismo que en aezc. Y sal., el resultado de *-one* en las voces de introducción más antigua ha sido *-io*, procedente sin duda de *-oi* (...) Así *arratio* 'rata' (a.-nav. Bertizarana, etc., guip. vizc. *arratoi*, a.-nav. Baztán, b.-nav. lab. *arratoin, arrotain*, sul. *arrathû*, ronc. Vidángoz *arratoî*, Isaba, Uztárroz *arratói*), sal. *matio* 'leche cuajada para hacer queso' (ronc. Vidángoz *matoî*, Isaba *matói*, nav. *matón*), (...) En préstamos más recientes se mantiene *-on*: aezc. *azkon*, sal. *axkon* 'tejón', sal. *xabon* 'jabón' (ronc. Vidángoz *zazoî*, Isaba *zazói*, sul. *sasû* con *s* sonora). Por lo que respecta a los préstamos en *-ión*, de carácter más culto, parecen distinguirse dos grupos: uno, el más numeroso y posiblemente el más antiguo, acaba en *-io* y el otro en *-ione*: a.-nav. Elcano, Uriz (valle de Arce), etc. *barkazio*, sal. *parkazio* 'perdón', aezc. a.-nav. Elcano, etc. sal. *orazio* 'oración' (...)."



*xagonia* (< jabón), *kamiona* (< camión), *montona*, *frontona*, *marrona*, *melona*, *balona*, *kañona*<sup>7</sup>, *klariona*, *leona*, *sermona*, *pantalona*, *balkonia*, ...

-*ión* bukaeradun burutzapenak, -*ziyo* bihurtzen dira bai Bakaikun, bai Sakana erdialdean, /y/ kontsonante epentetikoa tartekatu eta bukaerako sudurkariaren galera suertatzen direlarik ondorengo adibideotan ikus daitekeen moduan:

*arraziyo* (< ración), *deboziyo*, *maldiziyo*, *afiziyo*, *oraziyo*, *aziyo* (< acción), *relijiyo*, *manifestaziyo*, *kustiyo*, ...

- *u – u* → *i – u* / *u – u* eta *i – u* → *i – i* *desasimilazioak*. Burutzapen gutxi dira jaso ditudanak, baina oso adierazgarriak:

*irruiti*<sup>8</sup> (< urruti), *lurrin* (< lurrin)

*bultzurrinak* (< giltzurrinak)

*atximiska*<sup>9</sup> (< atzimurka), *biliskorriyen* (< biluzgorrian), *gaizima* (< garizuma)

- *Bokal epentesia*. Etimologikoa ez den, hau da, berez eraman behar ez duen bokala tartekatzeari esaten zaio bokal epentesia, eta burutzapen bakarrean jaso dut Bakaikuko hizkeran, Ergoienan gertatzen den burutzapen berberan:

*esenia* (< esnea). Honetaz gain, Unanun *aseneya* (< hatz nahia) entzun daiteke, baina ez Bakaikun, *azkuria* (< hatz gura).

- *Aferesiak*. Hitz baten hasierako fonema bat, silaba bat edo gehiago erortzeagatik gertatzen den aldaketa fonetikoa dugu aferesia. Eta nik, gertaera fonetiko honi dagokionez, behintzat Sakana erdialdean adina ageri dela Bakaikukoan ikusi dut:

*ta / da* (< eta)

*re* (< ere)

*o* (< edo)

*jito* (< ijito)

*zazu* (< ezazu)

*toz*<sup>10</sup> (< zatoz)

*txikoriya* (< atxikoria)

*kordiona* (< akordiona), *kordionista*.

Eta Sakana erdialdean bezala, bereziki aipagarriak dira Nor (plurala)-Nork erako aditz laguntzailearen formak, zeinetan lehen silaba osoa gal-

<sup>7</sup> MITXELENAN (1997, 143) esaten du aspaldidanik onartzen dela –on aldaketarik gabe goi-nafarreraz. Eta adibide moduan aipatzen du J.M. Iribarren-ek bere *Historias y costumbres* liburuan jasotzen duela nola 1835 urtean, Idocin-go Espoz y Minak, Lecroz-en ondorengoa galdetu zuen: “Kañonak non dire?”. Eta aipatzen du gipuzkeraz *kañoiak* izango litzatekeela.

<sup>8</sup> MITXELENA, K. (1977, 80): “Hechos análogos se presentan esporádicamente en dialectos más occidentales. Parece tratarse de desasimilación en ronc. vizc. *urrin* ‘lejos’ ..., cf. guip. mer. (y RS 147, 327) *urruiti* id. (guip. Echarri-Aranaz *irruiti*), *Urrutico* apellido navarro en el siglo XIII”.

<sup>9</sup> MITXELENA, K. (1977, 291. oharra): “ ..., de *atz* ‘dedo’ más *zimur* ‘frunce, arruga”.

<sup>10</sup> IRIBARREN, J.M. (Vocabulario Navarro, 47).

du baita. (Sakana erdialdean, honetaz gain hortzetako herskaria sabaikoa bihurtzen da, hots, palatalizatu egiten da):

*tut* (< ditut), *tuk / tun, tu, tû, tuzu, tuzai, tubei*.

- **Sinkopak.** Fonema bat edo gehiago hitzaren barruan desagertzen direnean gertatzen da sinkopa, eta azentuak eragina izaten du desagertzen horretan, bokala edo silaba tonugabeak erortzen baitira normalean. Hauxe izaten da bere bilakabidea:

$V C V C V \rightarrow V C C V$

*ibilko* (< ibiliko), *ikasko* (< ikasiko), *ekarko* (< ekarriko), *etorko* (< etorriko), ...

*andria* (< andrea), *bedratzi* (< bederatzi), *sobre* (< sobera ere), ...

*txertxai* (< txerrizai), *erleju* (< erreloju), *pezta* (< pezeta), *Santio* (< Santiago), *eskutur* (< eskumutur), ...

- **Apokopeak.** Hitzaren bukaerako fonemaren galera gertatzeari esaten zaio apokopea, eta Bakaikuko hizkeran /i/ bokalaz bukatutako partizipioei mugatzen da:

*etor da, ikus dot, ibil da, ...*

- **Metatesiak.** Kate mintzatuaren barruan fonema batzuk lekuz aldatzeari esaten zaio metatesia, eta badirudi<sup>11</sup> ebakera eta entzumena errazteko gertatzen dela bilakabide hau:

*be* (< bage<sup>12</sup> < gabe)

*ubaladia* (< igaraba)

*ikutu* (< ukitu)

*kabrestu* (< cabestro)

*tresondata*<sup>13</sup> (< desondratu)

*moru* (< cumulum (kopuru))

- **Bokal asimilazioa.** Asimilazioa, fonema batek aldameneko beste bat aldatzeari esaten zaio, hau da, haren ezaugarriren batek kutsatu egiten du, eta aipatu kutsadura edo aldaketa hori kontaktuan dauden bi unitateak artikulazio-ezaugarri erkideak lortzean oinarritzen da. Asimilatzea, beraz, hizketako soinu baten artikulazioa aldatzea izango litzateke, hots, soinu batek ondoan ikutzen edo hurbiltzen dagoen berezko ezaugarriak dituen beste bati ezartzen di(zki)o bere ezaugarriren bat(zu). Bakaikuko hizkeran ez da asimilaziorik suertatzen (ondoko Sakana erdialdean berriz oso ohikoak ditugu Etxarrin, Lizarragan, Lakuntzan eta Uhartan) asimilatu beharreko bokala hitz bukaeran dagoenean, eta Zuazok (1995, 308) dionez Burundan ere izatekotan, hautazkoa izan daiteke: “kontua da Izagirreraren (1967, 72) lanabesetan era bietara ager

<sup>11</sup> Oñederra, L. (1986, 328). Horrela aipatzen du autore honek W. Dressler-en aipamena jasoaz.

<sup>12</sup> Hau izango litzateke bere bilakabidea: *gabe* > (metatesia) *bage* > (bokal arteko herskariaren galera) *bae* > (V<sub>1</sub>V<sub>2</sub> > V<sub>2</sub>V<sub>1</sub>) *bee* > (V<sub>2</sub>V<sub>1</sub> > V<sub>2</sub>) *be*.

<sup>13</sup> Hasierako herskari hortzetakoa ahoskabe bihurtu ondorengo metatesia izango genuke, seguru asko: *desondratu* > *tesondratu* > *tresondata*.

dakigukeela hitz bera (...) *aurrekalde guziye* (...) *aurrekalde guziyá*". Asimilazioa aurrerakaria ( $a > e / i, u C\_ (C)$ ) edo atzerakaria ( $a > e / \_ (C) i, u$ ) izan daiteke, eta Bakaikuko hizkeran asimilazioa gertatzen da, baina aurrerakaria soilik, eta asimilatu beharreko bokala deklinabideko morfemakoa izanik, hauxe kontsonantez bukatzen denean:

*izurratu, mendiya, txikiya, zeruba, eskuba, egun bat, erria* (< herrira),  
*Etxarria* (< Etxarrira), *izan, ikasi, bizar, arrimatu, ...*  
*mendiyek, txikiyek, zerubek, eskubek, orduben, santuben, txikiyen, ...*  
*bai, jai, naiz, baita, nolabait, gaina, ...*

- *-a organiko edo berezkoari eustea*. Bakaikuko hizkeran, eta Burundakoan orokorrean, zenbait hitzek bukaeran duten *-a* organiko edo berezkoari eutsi egiten zaio, eta K. Zuazok *-a + -a > -ia* disimilazioaren ondorio moduan azaltzen digu: "Disimilazio hau gertatzearen bigarren ondorioa (lehena, hiztunak *-e / -a* amaiera duten hitzak nahastea izango litzateke), berriz, *-a* berezkoari zuzen eustea izan ohi da, eta ez dira Burundan gip. *-a*ipatutako Urola eta Goierriko hizkeretan ez bestee-tan- hain zabal dabiltzan *eliz bat, gauz bat, makilkada ...* tankerakoak betere ohizko. Nabarmendu, azkenik, Burundaraino, Bakaikuraino zehatzago nahi bada, iristen dela disimilazio honen isoglosa, eta ez dugu beronen aztarnarik behin Etxarriraz gero aurkitu." (1995, 306).  
 Hauek ditugu Bakaikuko burutzapenak: *gauza bat, eliza bat, makila bat, ...*

### Kontsonantei Dagozkienak

- *Asimilazio-bustidurarik eza*. Hauxe dugu Burundako ezaugarri nabarmenatarikoa eta Etxarri-Aranatz eta Bakaikuko hizkeren arteko isoglosa garbia eta garrantzitsua. Hizkera honetaz jardun duten ikerlari guztiek erreparatu diote ezaugarri honi, eta baita azalpena eman salbuespen moduan ageri izan denean kontrako burutzapena, Ondarraren (1965, 7 eta 21) kasuan esate baterako: "100.- *billabarkina*: *berbiquí*. Debe de ser muy reciente, pues lleva *-ll-*, que en Bac. no existe"; "21.- <murrillu (45). Cerrojo>. Se dice *murrilu*, pues en Bac. no hay *ll* ni *ñ*, y es <una barra de hierro que se mete en la madera o en hierro>".  
 Hauek dira Bakaikuko ohiko burutzapenak: *oilua, pila bat, baindo* (< baino), *mina, guaindo* (< oraino), *mutilak, bilatu, onutzeindo* (< honutzaino), *mogitu, aunditu, argitu, unitu, pintaerdiya, ito, goiti, nolabait, mintaiya, mila, oilarra, ...*

Eta hurrengoak, Ondarrak (1965) bere hiztegian jasotako adibideak: *ailatu, amointo, angilo, apiribil, arifistilu, artina, burkain, erlaino, errainu, eskila, gaztainaldi, goinata, goinatu, goitibera, guaindo, gurzil, ilardi, ilarraldi, ilondo, ilberri, ilarrosa, ilesagar, inurri, itain, itajura, kail, laino, maskilo, mutrilu, oilan, oilategi, ointo, okinetik jan, opil, ozkilo, pinudi, tapilo, tarratilu, ...*

Baina jaso ditut burutzapen palatalizatuak, gehienbat *i + txistukaria* ingurunean, eta bustidura adierazkorraren adibideak direnak: *ixo, ixildu, pixuba, aittuna* (baina *aita*), *pattarra, pattal, bixi-bixi, axei, goxua, txixa, fixtuba* (txistua), *abixatu, maixuba, atximixka* (hatz + zimurka),

*ttattalangorri*<sup>14</sup>, *Aixlux* (toponimoa), *Urkingo txulo* (toponimoa), *Pleituko bixkar* (toponimoa), *Lapurbideko txelaya*, ...

Mundiñanok ‘egoera aldaketa bat izan dela ondoriozta dezakegu’-la dio puntu honen hasierako Ondarraren bi aipamenak eta bere azterketaren emaitzak kontuan izan ondoren, baina nire ustean ez da horrela gertatu denik esateko nahiko arrazoi, eta bai Bakaikuren ekialdean dagoen Etxarriko biztanleekiko harremanaren eragina. Etxarriarekin hitzegiten dute gehienbat euskaraz bakaikuar euskaldun zaharrek, eta gure hizkerara egokitzen dute askotan, Pedro Miguel Ondarrak berak behin eta berriro esan didan moduan: “*guk ez jau ll, ñ ta olakoik esaten, bea zuek bai ordia ta orrengaiti esaten diet ‘milla’ ta ez ‘mila’, Bakaikun bezela*”.

- **Kontsonante herskarien burutzapenak. Txandaketak, galerak.** Herskari belareak, /k/ eta /g/, dira txandaketa gehien erakusten duten kontsonanteak. Eta txandaketeekin hasi baino lehen, aldameneko Sakana erdialdean ohikoa den bilakabidearen, bokal desberdinen arteko /h/-ren galera eta /g/-ren agerpena, aztarnak badirela Bakaikuko hizkeran ere, erakutsiko dut: *agua*<sup>15</sup> (< ahoa), *agotza* (ahotza), *egun* (ehun).

Burutzapen hauekin batera, Nafarroan ohikoa den *-o + h, r + -a > gua-* bilakabidearen arrastoa ere gelditzen zaigu Bakaikuko euskarari: *guai* (< orain), *guaindo* (< oraino).

Baina ez dira gertatzen Sakana erdialdean arruntak diren beste burutzapen hauek:

*oiya* (< ohea), *guatze* (< ohatze) Sakana erdialdean.

*errapatu* (< erreparatu), *guartu* (< ohartu) Sakana erdialdean.

Hitz hasierako txandaketei dagokienez, egoera nahiko nahasia da herskari belare eta ezpainen arteko, /b/ eta /p/, artean. Burutzapen ahostunak ugari dira, alde batetik: *geinuba* (keinua), *gorputza*, *girtena* (kirten), *gurtola* (gurdi + ohol), *gonbietu* (gonbidatu), *garrasi*, *golpia* (kolpe), *gitarria*, *goinatuba* (koinatu), *geldurra* (gailur), *barkatu*, *bekatu*, *bakia*, ...

Baina baita ahoskabeak ere, bestetik: *kendu*<sup>16</sup>, *karzela*, *kostatu*, *kanbiyuek* (kanbioak), *koostiya* (gorosti), *karreyua* (garraio), *konparaziyua*, *kolkua*, *kisa* (gisa), *kalbayua* (kalbario), *kisuba* (gisu < gypsum), *kaixak* (gereziak), *koilaria*, *piztu*, *pertza*, *pizkorra*, *piperra*, *pikia* (bike), *poltsia*, ...

Hitz barruan gertatzen diren herskariaren galerei dagokienez ere egoera aurrerokoaren antzekoa dugu, hots, nahasia. Eta ‘arau’ moduan esan daitezkeenak ondorengoak dira: bokal berdinen arteko herskari belare ahostuna ez da galtzen; eta *-ago* morfema konparatzaileko herskaria, berriz, bai, ‘egon’ aditzaren nor erako orain aldiko aditz formen kasuan bezala<sup>17</sup>:

<sup>14</sup> Ondarra (1965, 18): “cierto pájaro”.

<sup>15</sup> Horrela jaso dute Euskal Dialektologiaren Hastapenak liburuan (176): “Bokal desberdinen arteko /h/, ipar-nafarreran, Ahuñamendiko beste hizkeretan bezala /g/ ematen du: *bigar*, *egizi*, *agua*, *etab.*”.

<sup>16</sup> Etxaidek (1989, 246) *gendu* jaso zuen Bakaikun.

<sup>17</sup> Eta bi gertaeren kasuan bilakabide berdina antzeman daiteke: *-ago > ao* (bokalen arteko herskari belare ahostunaren galera) > *oo* ( $V_1V_2 > V_2V_2$ ); *beltzago > beltzao > beltzoo*; *nago > nao > noo*.

*beltzoo* (beltzago), *txikiyoo*, *aundiyoo*, *luzioo* (luzeago), *noo* (nago), *doo* (dago), ...

*in* (egin), *yoosi* (egosi, erosi), *ezautu* (ezagutu), *bairatu* (begiratu), *naile* (nabil), *gaitza* (gabiltza), *zuiya* (zubia), *aitaiyarra* (aitaginarreba), *ailatu* (ailegatu), *paatu* (pagatu, paratu), ...

Bestela, modu bateko zein besteko gertaerak ditugu: *sagarra*, *gogorra*, *gogoti(k)*, ... eta salbuespen moduan *Lizarraa* (Lizarraga) eta *tuu* (< tugu < ditugu), *aurpegiya*, *nagosiya*, *zartagiya*, *abil*, *ebagi*, *jagi*, ...

Ez da ahoskabearen aldeko neutralizaziorik gertatzen ‘ez’ partikula eta /g-/ herskariaren artean sortutako sandhi-etan, Sakana erdialdearen antzera: *ezgaa* (< ez gara), *ezgaitza* (< ez gabiltza), *ezgindaken* (< ez ginen), ...

Ezpainetako herskariak, ahostunak eta ahoskabeak, txandaketak jasaten dituzte, haien artean eta ezpainhortzetako igurzkari ahostunarekin, /f/-rekin. Ondorengoak Bakaikuko zenbait burutzapen ditugu: *bake*, *barre*, *festa*, *kafi* (habia), *pagua* (pago), *paaxiia* (pagatxa), *fixtuba* (*pixtu* Sakana erdialdean), *alfer*, *napar*, *afaldu*, ...

- *Kontsonante txistukarien burutzapenak*. Oso ondo bereizten dira kontsonante txistukariak bakaikueran, eta ez du nire informatzaileak inongo arazorik burutzapen guztiak era egokian ahoskatzeko. Eta galdeturik ea zein burutzapen gertatzen diren txistukarien artean /n, l, r/ kontsonante ondoren doazenean, orokorrean Zuazok<sup>18</sup> Burunda osorako eta Mundiñanok<sup>19</sup> Bakaikurako lehenago esandakoarekin bat datozenak jaso ditut. Joera nagusia kontsonante txistukariak ez afrikatzearena izango genuke baina, hala ere, hortzobietako igurzkari ahoskabearen kasuan bai gertatzen da afrikazioa nik jasotako burutzapenetan, guztietan ez bada ere: *pentsatu*, *pentsuba*, *altsasuarra*, *faltsua*, ... baina *salsa*, *bersolaiya*, *jersia*, ... *zarzarua*, *franzesa*, *bizerzuba*, *kanzonzillua*<sup>20</sup>, *marsuba*, ...

‘Ez’ partikula + *z-* bizkarhobietako igurzkari ahoskabeaz hasten diren adizkien kasuan ere, frikariaren<sup>21</sup> alde ageri zaizkigu burutzapen guztiak, txistukarien murrizketa ere suertatzen delarik: *ezaken* (< ez zuan), *ezan* (< ez zen), *ezanen* (< ez zunan), *ezaiyok* (< ez zaiok), ...

Bestalde, Nafarroako hizkeretan ohikoa den instrumentalaren morfemaren hortzobietako igurzkariaren aldeko neutralizazioa, hots, /-z/-ren

<sup>18</sup> (1995, 319): “Izagirrek Altsasun bildutako lanabesetan ebakera frikaria dugu beti: *in ber zán* (...) Morfema mugetan ere frikaria ebakitzen da (...) Aztergai genuen eremu osoan bildu ditugu *marsuba* erdal maileguren tankerakoak (...)”.

<sup>19</sup> Lan argitarabea (6. orrilladea): “(b) /r, l, n/ ozenen ondoren frikariaren aldeko joera du Bakaikuko euskarak: *bilatzen zaken*, *patu en ber zikin*, *ibiltzen zaken*, *fan zaken*, *esaten zaken*, ... Bi salbuespen jaso ditut testu osoan (berak egindako grabaketaren transkribapenez ari zaigu): *altzenak* (ahal zuenak) eta *ementziaken* (omen ziren)”.

<sup>20</sup> Burutzapen honetako palatalizazioa, seguru asko, mailegu berria izatean datza.

<sup>21</sup> Txillardegik (1980, 148-9) ondorengoa esaten du: “Bizkaieraz, erronkarietaz, Atsasuko euskalkiaz, eta agian, beste nonbait, hirugarren pertsonaren marka 0- da, eta ez *z-*. Eta afrikaziorik ez da gertatzen ukazioetan: B., *ezan*, Mark. 22, 24, 40; B., *ezien makalak*, Mrk., 45; R., *ezakein*, *ezakezein*, *ezakizun*, *ezein* (= ez zuten), etabar. (ikus K. Izagirre)”.

ordez /-s/ erabiltzea, ez da Bakaikun gertatzen, eta muga egiten du Etxarritik ekialderako hizkerarekin. Zuazoren arabera Burunda osoan gertatzen da Bakaikun bezala:

*oinez, euskeaz* (euskaraz), *eskuz*, ...

- *Igurzkariak*. [x] fonema, belare igurzkari ahoskabea, dago erabat zabalduarik Sakana osoan, eta Bakaikuko hizkeran ere bai, beraz. Horrela, ohikoak ditugu jarraian aipatuko ditudan burutzapenak: *jan*, *jo*, *jarri*, *jaun*, *Jangoiko*, *jantzi*, *josi*, *ajola*, *jersia*, *biejia* (bidaia), *jikaria* (kikara), *jeksiya*, *jaunkaz* (zaunkaz), *Jazinto*, ... Gainera Bakaikun, Burunda osoan bezala, hitano alokutiboetako hainbat adizkiek *j*- hartzen dute:

*jak/n* (nau, alokutiboa), *jailjanai* (naute, alokutiboa), *jituk/n* (ditu, alokutiboa), *jauljanau* (dugu, alokutiboa), *jituaul/jitunau* (ditugu, alokutiboa), *jituaill/jitunai* (dituzte, alokutiboa), *jak/n* (dit-dio-die, alokutiboa), *jat/janat* (diot, alokutiboa), *jaubet/jaubenat* (diet, alokutiboa), ...

[j] fonema, sabaiko igurzkari ahoskabea, nahiko zabaldua dugu, baina ez aurreko fonemaren burutzapen edo ebakera gisa, baizik eta beste arrazoi edo bilakabide batzuegatik, hala nola bokalismoan aztertutako *e- > y / \_\_\_d,g,r + V* eta *-i + -a > -iya* bilakabideak, aditzaren singularreko 2. pertsonen kasua eta *-h,g,d,n- > y / i\_\_\_ V* bilakabidea:

*yan* (edan, eraman), *yakusi* (erakutsi), *yosi* (erosi, egosi), *yon* (egon), ...  
*mendiya*, *erriya*, *idiya*, *txikiya*, ...

*yekan* (< heukan), *yuke* (huke), *yen* (huen), *yaken* (hindudan), *yan* (hion), *yatzan* (hizkion), ...

*iyesi* (< ihesi), *iyó* (< eho, igo), *biyer* (< bihar), *niyua* (< nihoa), *diyua* (< \*dihoa), *biyurri* (< bihurri), *miya* (< mihia), *iyortzi* (< igurtzi), *fiyatu* (< fidatu), *iyore* (< inor ere), *iyuare* (< inora ere), *iyun dienak* (< inon direnak), ...

[f] fonema, ezpain-hortzetako igurzkari ahoskabea, ere nahiko hedatua ageri da, batzutan /j/ belarearen ordeztan, eta beste batzutan, berriz, gipuzkeran bereziki, herskaria erabiltzen den tokian:

*fan*<sup>22</sup> (joan), *faria* (joarea), *forratu* (jorratu), *itufaria* (< itajura, itogina), ...

*festa*, *ferria*, *fedea*, *infarnua*, *faltsua*, *franko*, *kafia*<sup>23</sup> (habia), *alfer*, ...  
baina *pago*, *naparra*, *pikuba*, ...

- *Albokaria*. Albokari hortzobietako ahostuna, /l/, baino ez dugu aurkituko Bakaikun, ezen sabaikoa ez baita erabiltzen kontsonantismoaren hasieran esaten nuen moduan. Ondarrak (1965, 7) burutzapen bat, *billa-barkina*, baino ez du azaltzen eta gaineratzen du denbora gutxiko kon-

<sup>22</sup> MITXELENA, K. (1977, 173): "De *joan* 'ir', vizc Eibar, Elgueta, Placencia, guip Alsasua, Olazagutía, Echarri-Aranaz, a.-nav Fuenterrabía, aezc, sal, ronc Vidángoz *fan*, vizc Placencia y Oñate *fuan* ...".

<sup>23</sup> MITXELENA, K. (1977, 266): "Hay también ejemplos seguros de *b > f* entre vocales: (...) mer *afia* 'nido', a.-nav b.-nav lab *kafia* (ya Pouv) (< (h)abia, kabia; ...".

tua behar duela izan hitz honen sarrera bakaikueran, ez baita albokari sabaiko ahostunik erabiltzen. Era berean, 21. orrialdean, zuzentzen du Zubigarrek jasotako burutzapena, *murrillu*, *murrilu* izan behar duela gaineratuz.

Bestalde, albokariekin gertatzen diren txandaketei dagokienean Sakana erdialdeko hizkeraren antzera ageri zaizkigu Bakaikuko burutzapenak, Burundan ageri den mendebaldeko joeratik aldentuz:

*/n txandaketa: larruba, laurriya* (neurria), *lazka* (nazka), *lasai*.

Eta hitz barruan: *arrantza* (arraultza)

*/d txandaketa: elurra, ilarra* (landarea, sasia), *idarra* (barazkia), *idargiya* (ilargia), *zidarra* (zilarra)

Aipatzekoa da, era berean, *pl-* eta *fl-* kontsonante taldeen egonkortasuna, nahiz erabatekoa ez izan: *Planta, plumatu, floria*. Baina: *patera* (platera), *oilo lokia*

• **Dardarkariak.** Dardarkari xamurra, /r/, ez da inoiz hitz hasieran agertzen, eta erdian erori egiten da bokal artean, baina ez era sistematikoan Sakana erdialdean bezala. Nahiko egoera nahasia erakusten du, ezen adlatibo kasuko morfeman, esaterako, galdu egiten da dardarkaria, eta posposizioa denean, berriz, ez:

*nua*<sup>24</sup> (nora), *etxia* (etxera), *atzia* (atzera), ...

*azpiti gora, goiti bera*, ...

Galera finkoak edute genitiboaren eta datibo singularraren morfemen kasuetakoa izango genituzke, eta gainerako kasuetan badirudi gehiengotan galdu egiten dela:

*noon*<sup>25</sup> (noren), *amaan* (amaren), *amai* (amari), *semiei* (semeari), *beandu*, *beenduba* (merendua), *lanbata* (larunbata), *beatu* (beratu), *tiaferra* (tiraferria),...

*nori, baratzia, txinguri*<sup>26</sup> (< txingudi), ...

Ez du Bakaikuko hizkeran alboko Sakana erdialdeko zenbait herritan gertatzen den *d/r* txandaketak inongo eraginik:

*edariya*<sup>27</sup>, *idiya*<sup>28</sup>, *etor adi*<sup>29</sup>, *bedinkatua*, ...

Dardarkari azkarra, /rr/, agertzen da hitz hasieran mailegu nahiko berriak direnetan eta ez du, beraz, bokal protetikorik hartzen:

*raza, radiyua, remolatxa, roskila, rekesona, rubiyua, repartitu, reu-niyua, remolkia, reuma*, ...

<sup>24</sup> Hauze izango litzateke bere bilakabidea: *nora* > *noa* (bokal arteko dardarkariaren galera) > *nua* (disimilazioa eta diptongazioa).

<sup>25</sup> Eta beste hauze burutzapen honena: *noren* > *noen* (bokal arteko dardarkariaren galera) > *noon* ( $V_1V_2 > V_1V_1$ ).

<sup>26</sup> Etxarri-Aranatzen *txingui*.

<sup>27</sup> Etxarrin, Arbizun, Lakuntzan, Arruazun eta Uhartan *erai*; *edari* Ergoienan.

<sup>28</sup> Etxarrin, Arbizun, Lakuntzan eta Uhartan *iri*; *idi* Ergoienan eta Arruazun.

<sup>29</sup> Hau eta hurrengo burutzapenak /r/-rekin Etxarrin: *etor ari*, *beriketube*.

Bestelako kasuetan ez da ageri hitz hasieran. Ondarrak ere ez du hitz bat bera ere jaso bere hiztegian dardarkaria hasieran daramalarik. Maileru zaharretan, bokal protetikoa gehitzen zaie:

*Arratoi, arrazoi, arraziyo, errainu, errabiya, arrastakan, arrayua, arrasua, errezatu, irriatu* (< erregatu), *erregia, erremeyua, errespetua, errenta, errenditu, arropa*<sup>30</sup>, *errosayua, errota, erromeiya, ...*

Zenbait kasutan galdu egiten da dardarkari azkarra, behin gutxienez bokalen artean eta baita galdetzaileen kasuan ere:

*Atsaldia* (arratsaldea), *nok* (nork), *ze* (zer), *zetako* (zertarako)

Ez da, aldiz, galera suertatzen Sakana erdialdean gertatzen den beste burutzapen batzuetan:

<i>berriz</i> (Bakaiku)	<i>beix</i> (Sakana erdialdea)
<i>in ber dot</i> (Bakaiku)	<i>ein biet / biot / biut</i> (Sakana erdialdea)
<i>in ber dezu</i> (Bakaiku)	<i>ein biez / biozu / biuzu</i> (Sakana erdialdea)

Bi burutzapenen kasuan, behintzat, dardarkari azkarraren aldeko neutralizazioa jasaten du xamurrak, eta biak eratorpeneko atzizki baten kasuan suertatzen dira, *-gura > -kurre*:

*txixakurria* (txixagura), *kakakurria* (kakagura)

Bigarrena berdin entzun daiteke Sakana erdialdean (lehena *pixekurre*), eta *kakagorri* Ergoienan.

- *Sudurkariak*. Sabaiko sudurkaria, /n/, igurzkari bihurtzen da sarritan /i/ baten ondoren doanean:

*Iyore* (inor ere), *iyoi* (inori), *iyun* (inon), *iyun dienak* (inon direnak), *iyuare* (inora ere), ...

Soziatibo kasuaren morfeman ez da galtzen sabaiko sudurkaria, ondoko Sakana erdialdean gertatzen den bezala:

*zuukin, iikin, guukin, amaakin, txakurraakin, semiekin, Ferminekin, ...*

\*-ani > -ai<sup>31</sup> bilakaerak bizirik dago Bakaikuko hizkeran:

*txertxai* (txerri + zain), *amurreiya* (amu + arrain), *arreiya, useiya* (usain), *txistezai*<sup>32</sup>, *kafizai, ...*

- *Errotazismo aztarnarik eza*. Ez da ageri Bakaikuko hizkeran inongo errotazismo aztarnarik, hurrengo burutzapenetan ikus daitekeen moduan:

*Bost, beste, esan, ostegun, ostiela, itxi, masurtia* (*masusta* Etxarrin), *estia, ...*

<sup>30</sup> Mitxelena, K. (1977, 156): "Or. (oriental) *arropa* 'ropa', guip vizc *erropa*; ...".

<sup>31</sup> Mitxelenak (1977, 143-144) dionez gipuzkera eta Nafarroa Garaiko hizkeretan bete da bilakabide hau.

<sup>32</sup> Burutzapen hau eta hurrengo Ondarrak (1965) jasoak dira: "txistezai: trillo", "kafizai: nidal, huevo o algo parecido que se deja en un lugar para que la gallina ponga huevos allí".



MORFOLOGIA

Izenordainak

Pertsona izenordainak ez dira gehiegi bereizten forma estandarizatuetatik, eta hauexek ditugu horietako batzuk:

<i>ni</i>	<i>nik</i>	<i>neri</i>	<i>nera</i>	<i>netako</i>	<i>neekin</i>	<i>neebaitan</i>	<i>neregana</i>	<i>neregaiti</i> <sup>33</sup>	<i>neraz</i>
<i>i</i>	<i>ik</i>	<i>iri</i>	<i>ira</i>	<i>itako</i>	<i>iikin</i>	<i>iibaitan</i>	<i>iregana</i>	<i>iregaiti</i>	<i>irez</i>
<i>gu</i>	<i>guk</i>	<i>guri</i>	<i>gure</i>	<i>gutako</i>	<i>guukin</i>	<i>guubaitan</i>	<i>guregana</i>	<i>guregaiti</i>	<i>gurez</i>
<i>zu</i>	<i>zuk</i>	<i>zuri</i>	<i>zure</i>	<i>zutako</i>	<i>zuukin</i>	<i>zuubaitan</i>	<i>zuregana</i>	<i>zuregaiti</i>	<i>zurez</i>
<i>zek</i>	<i>zek</i>	<i>zeiri</i>	<i>zen</i>	<i>zendako</i>	<i>zekin</i>	<i>zenbaitan</i>	<i>zengana</i>	<i>zengaiti</i>	<i>zenez</i>

Eta forma indartuak ere nahiko orokorrak direla esan daiteke:

*neoni, neonek, zeorrek, geok, neonendako, zeorrekin, ...*

Eta izenorde indartuen artean *yor* bigarren pertsona singularreko forma dugu Sakana erdialdekoa eta Aezkoakoa (I. Camino, 1998<sup>34</sup>) bezalakoak:

*yor, yorrek, yorri, yoren, yorrendako, yorrekin, ...*

Izenordain mugagabeei dagokienez, hurrengoak ditugu erabilienak bakaikueran:

*bakarren bat, norbait, zerbait, zeozer* (zer edo zer), *batee(z)* (bat ere (ez)), *baten bat, yozein* (edozein), *iyor(e)* (inor (ere)), ...

Erakusleetan, ergatibo kasuko hirugarren gradukoak nafarreran erabat hedatua dugun burutzapena erabiltzen da Bakaikun, hurrengo koardroan ikusten den moduan:

<i>au</i>	<i>ori</i>	<i>ura</i>	<i>oik</i>	<i>oik</i>	<i>aiek</i>
<i>onek</i>	<i>orrek</i>	<i>arrek</i>	<i>oik</i>	<i>oik</i>	<i>aiek</i>
<i>oni</i>	<i>orri</i>	<i>arri</i>	<i>oieri</i>	<i>oieri</i>	<i>aieri</i>
<i>onen</i>	<i>orren</i>	<i>arren</i>	<i>oien</i>	<i>oien</i>	<i>aien</i>
<i>onekin</i>	<i>orrekin</i>	<i>arrekin</i>	<i>oiekin</i>	<i>oiekin</i>	<i>aiekin</i>
<i>onendako</i>	<i>orrendako</i>	<i>arrendako</i>	<i>oiendako</i>	<i>oiendako</i>	<i>aiendako</i>
<i>onengaiti</i>	<i>orregaiti</i>	<i>arregaiti</i>	<i>oiengaiti</i>	<i>oiengaiti</i>	<i>aiengaiti</i>
<i>ontan</i>	<i>ortan</i>	<i>artan</i>	<i>oietan</i>	<i>oietan</i>	<i>aietan</i>
<i>onenbaitan</i>	<i>orrenbaitan</i>	<i>arrenbaitan</i>	<i>oienbaitan</i>	<i>oienbaitan</i>	<i>aienbaitan</i>
<i>onengana</i>	<i>orregana</i>	<i>arregana</i>	<i>oiengana</i>	<i>oiengana</i>	<i>aiengana</i>
<i>onez</i>	<i>orrez</i>	<i>arrez</i>	<i>oiez</i>	<i>oiez</i>	<i>aiez</i>
<i>ontako</i>	<i>ortako</i>	<i>artako</i>	<i>oietako</i>	<i>oietako</i>	<i>aietako</i>
<i>ontati</i>	<i>ortati</i>	<i>artati</i>	<i>oietati</i>	<i>oietati</i>	<i>aietati</i>
<i>ontaa</i>	<i>ortaa</i>	<i>artaa</i>	<i>oietaa</i>	<i>oietaa</i>	<i>aietaa</i>

Eta forma indartuen artean, hirugarren gradukoak ('bera', ...) dira erabiltzen direnak, pluraleko formak bereziak suertatzen direlarik:

<sup>33</sup> Ablatiboan eta motibatiboan erabiltzen da forma bera Bakaikun: 'niregandik' eta 'niregatik'.

<sup>34</sup> Ondorengo formak jaso ditu Caminok Aezkoan: *yor, york, yori, yoren, yoreki, yorendako, yortas*.

Bera, ...	Berak, beraiek...	
<i>bea</i>	<i>ebeik</i>	<i>yak, erak</i> (Etxarri)
<i>beak</i>	<i>ebeik</i>	<i>yak, erak</i> (Etxarri)
<i>beai</i>	<i>ebeiri</i>	<i>(y)erai</i> (Etxarri)
<i>bean</i>	<i>ebein</i>	<i>(y)eran</i> (Etxarri)
<i>beakin</i>	<i>ebeikin</i>	<i>(y)eraki</i> (“)
<i>beandako</i>	<i>ebeindako</i>	<i>(y)erandako</i> (“)
<i>beangaiti</i>	<i>ebeingaiti</i>	<i>(y)erangati</i> (“)
<i>bean</i>	<i>baitan ebein baitan</i>	<i>(y)eran beitten</i> (“)
<i>beagana</i>	<i>ebeingana</i>	<i>(y)erangana</i> (“)
<i>beaz</i>	<i>ebeiz</i>	<i>(y)eras</i> (“)

Eta hauek ditugu erabiltzen diren galdetzaileen burutzapenak:

*nor, nok, nori, noon, nookin, noondako, zeinez, nun, nungo, nundi, nue, noongana, noongaiti*

### Zenbatzaileak

Zenbatzaile zehaztuetan ez da bateko eta hamarrekotan gertaera berezirik, *bedratziren* kasuko sinkopaz gain. Ehunekotan, berriz, hirugarrenetik aurrera parafrasia erabiltzen da:

*egun* (ehun), *berraun, iru aldiz egun, lau aldiz egun, bost aldiz egun, sei aldiz egun, zazpi aldiz egun, zortzi aldiz egun, bedratzi aldiz egun.*

Eta azkenik, milakoetan burutzapen ez palatalizatuak erabiltzen dira:

*mila, bi mila, iru mila, ...*

‘Bat’ zenbatzaileak ez du inoiz ezpainetako herskaria galtzen, ez bere bokala asimilatzen, nahiz eta determinatzaile moduan agertu, Sakana erdialdean gertatzen den moduan:

*plaza bat* (*plazaat* Sakana erdialdean), *sega bat, etxe bat* (*etxiat* Sakana erdialdean), *erri bat* (*erri bet* Sakana erdialdean), *mendi bat, leku bat, ...*

Ordinalen burutzapenak hauexek dira: *lenbizikua, bigarrena, irugarrena, laugarrena, bosgarrena, ... atzenal/azkena.*

Eta zenbatzaile zehaztugabeak, honako hauek ditugu erabilienak:

*batzuk, zenbait, asko, ainbeste, izugarri, makina bat, ezta bat ere, eskukada bat, besarkada bat, obeki, gogoti, ubari, franko, poleki, naiko, moltso bat, samalda bat, gutxi, pila bat, ...*

Eta hemen ditugu ia guztiak bere testuinguruan:

*Gizon batzuk in dai* (Gizon batzuk egin dute)

*Zenbait andre ez dau aurrik* (Zenbait andre ez du haurrik)

*Basuen lan asko in dot* (Basoan lan asko egin dut)

*Zuek ez dezai ekarri ainbeste egur* (Zuek ez duzue ekarri hainbeste egur)

*Jende izugarri etor dok Santiyotaa* (Jende izugarri etorri duk Santiagotara)

*Launik ezta bat ere ez don agertu* (Lagunik ezta bat ere ez dun agertu)

*Zorrak obeki(gogoti, franko) jitunau!* (Zorrak hobeki (gogotik, franko) dizkinagu!)

*Jende ubari yon zaken* (Jende ugari egon zuan)

Eta zenbatzaile orokorrak, aldiz, Sakana erdialdean bezalatsu ditugu: *dena*<sup>35</sup>, *guzia*, *osua*.

*Zaldi denak etor tuk bueltan basoti* (Zaldi denak etorri dituk bueltan basotik)

*Jende guzia aspertuik fan don* (Jende guztia asperturik joan dun)

*Ogi osua jan zen* (Ogi osoa jan zuen)

### Deklinabidea

Ez ditut Bakaikuko hizkerako deklinabide kasu guztiak banan-banan azalduko, baina bai sei lexema hauen, *seme-mendi-gizon-elur-Fermin-Arbizu*, singularreko eta pluraleko burutzapen guztiak ondorengo koadroan, jarraian bakaikueraren deklinabide ezaugarri nagusiak azaltzeko.

	singularra	plurala	singularra	plurala	
nor	<i>semia</i>	<i>semiek</i>	<i>gizona</i>	<i>gizonak</i>	<i>Fermin</i>
nork	<i>semiek</i>	<i>semiek</i>	<i>gizonak</i>	<i>gizonak</i>	<i>Ferminiek</i>
nori	<i>semiei</i>	<i>semiairi</i>	<i>gizonai</i>	<i>gizonairi</i>	<i>Fermini</i>
noren	<i>semien</i>	<i>semiain</i>	<i>gizonan</i>	<i>gizonain</i>	<i>Ferminen</i>
norentzat	<i>semiendako</i>	<i>semiaindako</i>	<i>gizonandako</i>	<i>gizonaindako</i>	<i>Ferminendako</i>
nortzat	<i>semetako (mgg)</i>		<i>gizonetako (mgg)</i>		<i>Ferminetako</i>
norengandik	<i>semiengaiti</i>	<i>semiaingaiti</i>	<i>gizonangaiti</i>	<i>gizonaingaiti</i>	<i>Ferminengaiti</i>
norengana	<i>semiengana</i>	<i>semiaingana</i>	<i>gizonangana</i>	<i>gizonaingana</i>	<i>Ferminengana</i>
norengan	<i>semien baitan</i>	<i>semiain baitan</i>	<i>gizonan baitan</i>	<i>gizonain baitan</i>	<i>Ferminen baitan</i>
(norik)	<i>semeik (mgg)</i>		<i>gizonik (mgg)</i>		<i>Ferminik</i>
norengatik	<i>semiengaiti</i>	<i>semiaingaiti</i>	<i>gizonangaiti</i>	<i>gizonaingaiti</i>	<i>Ferminengaiti</i>
norekin	<i>semiekin</i>	<i>semiaikin</i>	<i>gizonakin</i>	<i>gizonaikin</i>	<i>Ferminekin</i>
zerez	<i>semiengaiti</i>	<i>semiaingaiti</i>	<i>gizonangaiti</i>	<i>gizonaingaiti</i>	<i>Ferminengaiti</i>
noren baitako	<i>semien baitako</i>	<i>semiain baitako</i>	<i>gizonan baitako</i>	<i>gizonain baitako</i>	<i>Ferminen baitan</i>

	singularra	plurala	singularra	plurala	
nor	<i>mendiya</i>	<i>mendiyek</i>	<i>elurra</i>	<i>elurrek</i>	<i>Arbizu</i>
nork	<i>mendiyek</i>	<i>mendiyek</i>	<i>elurrek</i>	<i>elurrek</i>	<i>Arbizuk</i>
nori	<i>mendiyai</i>	<i>mendiyairi</i>	<i>elurrai</i>	<i>elurrairi</i>	<i>Arbizui</i>
noren	<i>mendiyain</i>	<i>mendiyain</i>	<i>elurran</i>	<i>elurrain</i>	<i>Arbizun</i>
norentzat	<i>mendiyandako</i>	<i>mendiyaindako</i>	<i>elurrandako</i>	<i>elurraindako</i>	<i>Arbizundako</i>
nortzat	<i>menditako (mgg)</i>		<i>elurretako (mgg)</i>		<i>Arbizutako</i>
nondik	<i>menditi</i>	<i>menditai</i>	<i>elurreti</i>	<i>elurretai</i>	<i>Arbizuti</i>
nora	<i>mendia</i>	<i>menditaa</i>	<i>elurria</i>	<i>elurrettaa</i>	<i>Arbizua</i>
non	<i>mendiyen</i>	<i>menditan</i>	<i>elurrien</i>	<i>elurretan</i>	<i>Arbizun</i>
(zerik)	<i>mendiik (mgg)</i>		<i>elurrik (mgg)</i>		<i>Arbizuik</i>
norengatik	<i>mendiyangaiti</i>	<i>mendiyaingaiti</i>	<i>elurrangaiti</i>	<i>elurraingaiti</i>	<i>Arbizungaiti</i>
norekin	<i>mendiyakin</i>	<i>mendiyainkin</i>	<i>elurrakin</i>	<i>elurraikin</i>	<i>Arbizukin</i>
zerez	<i>mendiyez</i>	<i>mendiyez</i>	<i>elurrez</i>	<i>elurrez</i>	<i>Arbizuz</i>
nongo	<i>mendiko</i>	<i>menditako</i>	<i>elurreko</i>	<i>elurretako</i>	<i>Arbizuko</i>

<sup>35</sup> Burundan *dana* izango litzateke burutzapena (Zuazo, 1995, 308): “Jatorriz *izan* aditzaren 3. pers. sg. den zenbatzaile orokorra ere *a*-duna da Burundan: *dana*, *danak*, *danok* ... Eta badira isoglosa garbi bi auzi honetan. Alde batetik, Etxarrin nahiz Ergoienan *a* ageri dute aditzek, baina *e*, ostera, zenbatzaile orokorrak. Behin Arbizuraz gero, berriz, *e* dugu beti, are *den*, *zen* ... adizkietan”.

Eta koadroan ikus ditzakegun ezaugarriak azalduko ditut ondoren:

Datibo kasua dugu denetan aipagarriena, bereziki *-airi* morfema, pluralean erabiltzen duena. Badirudi Burundakoa dugula ezaugarri hau, ezen Zuazok (1995, 326) Izagirrerri Altsasun eta Mundiñanok Bakaikun ere horrela jaso baitute: *dianairi* 'direnei', *ganaubeiri*, *guzíyeiri*, *mutilairi*, *oilúeiri*, *zarráiri* lehenak; eta *gizonairi*, *monjairi*, *neskatueiri* bigarrenak. Nire koadroetan ere ikus daitezke horrelako burutzapenak: *semiairi* (semeei), *gizonairi* (gizonei), *mendiyairi* (mendiei), *elurrairi* (elurrei). Bestalde, aipagarria da, kontsonante dardarkarien atalean esan dugun moduan, singularreko morfeman gertatzen den dardarkari xamurraren galera, *-ari* > *-ái*: *semiei*<sup>36</sup> (semeari), *gizonai* (gizonari), *mendiyai* (mendiari), *elurrai* (elurrari).

Antzeko burutzapena dugu genitiboaren kasuan, bai singularrean, *-an*, nola pluralean, *-ain*<sup>37</sup>: *semieen*<sup>38</sup> (semearen)/*semiain* (semeen), *gizonaan* (gizonaren)/*gizonain* (gizonen), *mendiyaan* (mendiaren)/*mendiyain* (mendien), *elurraan* (elurraren)/*elurraín* (elurren). Mundiñanok ondorengoak jaso zituen: *Urritxan etxie*, *Emilion*, *Martinen*, *elizien frente*.

Destinatibo kasua genitiboaren gainean eraikitzen da, baina ez du bakaikueran *-tzat* morfema erabiltzen, *-dako* baizik, nafarreraren<sup>39</sup> antzera: *semiendako/semiaindako*, *gizonandako/gizonaindako*, *mendiyandako/mendiyaindako*, *elurrandako/elurraíndako*. Hauexek Mundiñanok jasotakoak: *gutako*, *mutillaindako*, *ebeindako*.

Prolatiboan ere, nafarreraren<sup>40</sup> ildotik doa bakaikuko hizkera, eta *-tako* morfema erabiltzen du: *semetako*, *gizonetako*, *menditako*, *elurretako*.

Ablatiboaren kasuan, lexema bizigabeei dagokienean, kasu markaren bukaerako belare herskari ahoskabearen galera, *-k*-rena, suertatzen da eta gertaera hau ere oso hedatua dugu nafarreraren. Lexema bizidunekin, berriz, *-engaiti* da erabiltzen den kasu marka, sinkretismoa gertatzen delarik motibatiboarekin eta instrumentalarekin: *menditi/menditai*, *elurreti/elurretati*, *semiengaiti/semiaingaiti*, *gizonangaiti/gizonaingaiti*.

Soziatiboan, nik burutzapen guztiak bukaeran sudurkaria daramate larik jaso ditut, baina Mundiñanok esaten du noizean behin *-eki* ere agertu zaiola, eta hurrengo burutzapenak jaso ditu: *ardiyeki*, *barieki*, *Etxarriki*. Agian etxarriarrekin hitzegiterakoan suertatzen diren egokipenak izan daitezke.

<sup>36</sup> Gogoratu bokalismoan nioena, *-e* + *-a* > *-ie*. Horrela beraz, *seme* + *-ai* > *semiei*.

<sup>37</sup> Unanun ere horrela burutzen da genitiboa, baina singularrean: *amain* (amaren), *semiein* (semearen), ...

<sup>38</sup> Dardarkari xamurraren galerak ondorengo bilakabidea gauzatzen du: *seme* + *-aren* > *semearen* > *semieen* (*-e* + *-a* > *-ie*).

<sup>39</sup> I. Caminok aezkera deskribatzerakoan ondorengo dio: "Ezaguna denez, destinatiboko atzizkia *-rendako* da aezkeraz pertsona izenordainetan, *-retako* lehen pertsonako *ni* eta *gu* nahiz bigarreneko (*h*)*i* eta *zu* aldaeretan. Zaraitzun ere *-rendako* da. Goi-nafarreraz ere *-Baztanen*, *Ultzaman*, *Atezen*, *Anuen*, *Erroibarren*, *Eguesibarren*, *Garesen*, *Oltzan*, *Goñerrin*, *Sakanan* ...- oso hedatua da atzizki hau kasu marka honetarako". (1997, 380).

<sup>40</sup> Aezkeraz gain Ultzameraz (O. Ibarra, 1994, 424) ere atzizki hauxe erabiltzen dute.

Instrumentalaren kasuan, lexema bizidunen kasuan, ez da ohiko kasu marka erabiltzen, *-engaiti* baizik:

*-Zertas ai zarie izketan?* (Zertaz ari zarete hizketan?, etxarriaren egin-dako galdera). *-Semiengaiti!* (Semeaz!, erantzuna bakaikueran).

Aiapagarria azkenik deklinabidearen atalean, absolutibo eta ergatibo kasuetan gertatzen den sinkretismoa, lehenaren plurala eta bigarrenaren singularra eta pluralaren artekoa, burutzapen berbera erabiltzen baita hiru kasuetan:

*Semiek etor dia* (Semeak etorri dira) / *Gizonak fan dia* (Gizonak joan dira)  
*Semiek in dau* (Semeak egin du) / *Gizonak ekar dau* (Gizonak ekarri du)  
*Semiek in dai* (Semeek egin dute) / *Gizonak ekar dai* (Gizonak ekarri dute)

### Konparatiboa, Superlatiboa eta Gehiegizko maila

Lehena bi elementu elkarren artean konparatzeko erabiltzen da, eta bien artean goragoko maila duenari *-oo* morfema edo atzizkia eransten zaio bakaikueran, ondoko Sakana erdialdean bezala. Eta bilakabidea, hurrengo hauxe dugu: lehenik, bokalen arteko herskariaren galera; eta bigarrenik,  $V_1V_2 > V_2V_2$ .

*-ago > -ao > -oo*

*lenuoo*<sup>41</sup> (lehenago), *urdinoo* (urdinago), *beltzoo* (beltzago), *luzioo* (luzeago), *aundiyoo* (handiago), *beruoo* (beroago), *aluboo* (aluago), ...

Eta honetaz gain, *-ko* atzizkia eransten zaio zenbaitetan, *-ooko* (-agoko) morfema sortuz, bai kalitatea nola kantitatea adierazteko erabiltzen delarik:

*lenookua* (lehenagokoa), *urdinookua*, *beltzookua*, *luziookua*, *aundiyookua*, *beruookua*, *alubookua*, ...

*Ori politookua dok!* (Hori politagokoa duk!).

Eta maila superlatiboa lortu nahi denean, *-en* atzizkia eransten zaio izenondoari, ondorengo burutzapenak sortuz, besberdinak izenondoa bokalez edo kontsonantez bukatzen bada:

*-V + -en > VVn ; -C + -en > Cen*

<i>luze + -en(a) &gt; luzeen(a)</i>	<i>aul + -en(a) &gt; aulen(a)</i>
<i>asto + -en(a) &gt; *astoen &gt; astoon(a)</i>	<i>errez + -en(a) &gt; errezen(a)</i>
<i>argi + -en(a) &gt; *argien &gt; argiin(a)</i>	<i>gizon + -en(a) &gt; gizonen(a)</i>
<i>mutu + -en(a) &gt; *mutuen &gt; mutuun(a)</i>	<i>polit + en(a) &gt; politen(a)</i>

Gehiegizko maila adierazteko, *-egi* atzizkiak herskaria galtzen du, Etxarrin ez bezala, eta Arbizon gertatzen diren moduko burutzapenak sortzen dira Bakaikuko hizkeran:

*luze + -egi > luziei* (luze + -egi > \*luziegi > luziei).  
*aundi + -egi > aundiyei* (aundi + -egi > \*aundiyegi > aundiyei)

<sup>41</sup> Burutzapen honetan bi aldiz erantsi zaio morfema konparatzailea: *leben + -ago > lenao > lenoo > leno*; *leno + -ago > lenuao > lenuoo*. Etxarrin bi modutara, *lenoo / lenuoo*, erabiltzen da.

zozo + *-egi* > *zozuei* (zozo + *-egi* > \*zozuegi > zozuei)  
 beandu + *-egi* > *beandubei* (beandu + *-egi* > \*beandubegi > beandubei)  
 polit + *-egi* > *politei* (polit + *-egi* > \*politegi > politei)  
 txukun + *-egi* > *txukunei* (txukun + *-egi* > \*txukunegi > txukunei)

### Aditzondo edo Adberbioak

Ataltxo honetan bakaikueran erabiltzen diren mota desberdinetako (denbora, leku, moduzko, mailako eta iritzizko) aditzondoak jaso baino ez ditut egingo hurrengo koadroan. Ia guztiak Sakana erdialdean ere erabiltzen dira:

denbora	leku	modu	maila	iritzi
<i>alduyen (bein)</i>	<i>barrenien</i>	<i>malamente</i>	<i>zainen</i>	<i>apika</i>
<i>yainun, yainun atzeti</i>	<i>onutz, orrutz, autza</i>	<i>ondo</i> <sup>42</sup> , <i>obeto</i> <sup>43</sup> , <i>polito</i>	<i>erabat</i>	<i>berbada</i>
<i>atzia berriz</i>		<i>gexkixe, majo</i>	<i>arraso</i>	<i>agi danez</i>
<i>sekula</i>	<i>nunai</i>	<i>txarki</i>	<i>erdi</i>	<i>nunbait</i>
<i>beandu</i>	<i>iyun</i>	<i>gaizki (gaixo)</i>	<i>samar</i>	<i>sobree</i>
<i>bela, belaxe</i>	<i>iyuare</i>	<i>arrastakan</i>	<i>izugarri</i>	
<i>dagoneko</i>	<i>nuanai</i>	<i>korrikan</i>	<i>gogoti</i>	
<i>etzidamu</i>	<i>irruiti</i>	<i>banakan</i>		
<i>gio, sarri</i>	<i>onduen</i>	<i>inbuluskakan</i>		
<i>guai</i>	<i>aurrien</i>	<i>ozkakan</i>		
<i>noizen bain</i>	<i>gertu</i>	<i>furrutakan</i>		
<i>lenguen</i>		<i>arrikan</i>		

Aipagarrienak *-ka* atzizkiaz sorturiko modu aditzondoak ditugu, eta aipagarri dira Burundan eta Sakana erdialdean *-n* kontsonante sudurkariaren paragogea jasaten duelako aipatu atzizkiak, eta gainera kasuren batean atzizkiaren beraren errepikapena ere bai, *-kakan*: *inbuluskakan*, *ozkakan*.

### Aditz Laguntzailea

Orain, deklinabidearekin egin dudanaren antzera, lehenik aditz taulak egokituko ditut, indikatiboerako aditz forma gehienak (alokutiboak ere bai) bertan bilduz. Eta horretarako informatzaileak emandako formak hobetsiko ditut, Yrizarrek eta Gamindek bildutakoekin bat ez dotozenetan:

Nor era: orain aldia eta iragana: ‘naiz, haiz, da,...; nintzen, hintzen, zen,...’.

<sup>42</sup> Hurrengo oharrean bezala: “Guai bubure etxekat ondo artuik”.

<sup>43</sup> Horrela jaso zion Mundiñanok 1996an orduan 90 urte zituen Juan Lopez de Zubiriari: “... guai beste estilo bat bizi dok, guai obeto bizi dok”. Beraz moduzko aditzondoak eratzeko atzizkien mugan geundeke, hots, *-gil-to* isoglosa ezartzeko eremurik egokienean, ezen Burundan dagoeneko *-to* gailentzen da, eta hemen, Bakaikun, bi motatako burutzapenak ikus daitezke.

orain		lehen	
neutroa	hitano/alokutiboa	neutroa	hitano/alokutiboa
<i>Naiz</i>	<i>Nok/non</i>	<i>Nitzan</i>	<i>Nitzaken/nitzanen</i>
	<i>Daiz</i>		<i>Yitzan</i> <sup>44</sup>
<i>Da</i>	<i>Dok/don</i>	<i>Zan</i>	<i>Zaken/zanen</i>
<i>Gaa</i>	<i>Gaituk/gaitun</i>	<i>Gindan</i>	<i>Gindaken/gindanen</i>
<i>Zaa</i>		<i>Zindan</i>	
<i>Zai</i>		<i>Zindain</i>	
<i>Dia</i>	<i>Tuk/tun</i>	<i>Zien</i>	<i>Zieken/zienen</i>

Aipatzekoa orain aldiko pluraleko adizkien dardarkari xamurraren, *-r-*, galera: *gara* > *gaa*, *zara* > *zaa*, *zarete* > \**zarai* > *zai*, *dira* > *dia*. Era berean pluraleko bigarren pertsonaren *-ai* marka aiapagarri da.

- Nor-Nori era: orain aldia eta iragana. Nor ‘hura’ denean: ‘zait, zaik/n, zaio, ...; zitzaidan, zitzaian/nan, zitzaion, ...’.

orain		lehen	
neutroa	hitano/alokutiboa	neutroa	hitano/alokutiboa
<i>Zait</i>	<i>Zayat/zainat</i>	<i>Zakiten</i> <sup>45</sup>	<i>Zakiteken/zakitenen</i>
	<i>Zaik/zain</i>		<i>Zakiken/zakinen</i>
<i>Zayo</i>	<i>Zayok/zayon</i>	<i>Zakiyon</i>	<i>Zakiyoken/zakiyonen</i>
<i>Zaigu</i>	<i>Zaiguk/zaigun</i>	<i>Zakigun</i>	<i>Zakiuken/zakiunen</i>
<i>Zaizu</i>		<i>Zakizun</i>	
<i>Zaizei</i>		<i>Zakizein</i>	
<i>Zaye</i>	<i>Zayek/zayen</i>	<i>Zakiyen</i>	<i>Zakiyeken/zakiyenen</i>

Eta Nor ‘haiek’ denean: ‘zaizkit, zaizkik/n, zaizkio, ...; zitzaizkidan, zitzaizkian/nan, zitzaizkion, ...’.

orain		lehen	
neutroa	hitano/alokutiboa	neutroa	hitano/alokutiboa
<i>Zaizkit</i>	<i>Zaizkiet/zaizkinat</i>	<i>Zaizkiten</i>	<i>Zakitzaiteken/zakitzatzenen</i>
	<i>Zaizkik/zaizkin</i>		<i>Zakitzaiken/zakitzaiken</i>
<i>Zaizkiyo</i>	<i>Zaizkiyok/zaizkiyon</i>	<i>Zaizkiyon</i>	<i>Zakitzaizen/zakitzaizenen</i>
<i>Zaizkigu</i>	<i>Zaizkiuk/zaizkiun</i>	<i>Zaizkigun</i>	<i>Zaizkiuken/zaizkiunen</i>
<i>Zaizkizu</i>		<i>Zaizkizun</i>	
<i>Zaizkizei</i>		<i>Zaizkizein</i>	
<i>Zaizkiye</i>	<i>Zaizkiyek/zaizkiyen</i>	<i>Zaizkiyen</i>	<i>Zaizkiyeken/zaizkiyenen</i>

Nor gainerako pertsonak direnean (‘natzaik/n, natzaio, natzaizu, ...; nintzaian/nan, nintzaion, nintzaizun, ...’) ez da erabiltzen bakaikueran.

- Nor-Nork era: orain aldia eta iragana. Nor hirugarren pertsona singularra, ‘hura’, denean: ‘dut, duk/n, du, ...; nuen, huen, zuen, ...’.

<sup>44</sup> Lehenaldiko forman nafarrera eta ekialdeko eremuko ezaugarria den aditzetako singularreko bigarren pertsonan *y*-ren erabilera ageri zaigu.

<sup>45</sup> Erro desberdina nabari da orain aldian eta iraganean. Lehen aldian, Sakana erdialdean eta Bizkaiko iparmendebaldean Nor-Nori erako adizkiek erabiltzen dutena, *-ki-*, erabiltzen du bakaikuerak ere.

orain		lehen	
neutroa	hitano/alokutiboa	neutroa	hitano/alokutiboa
<i>Dot</i>	<i>Diet/dinat</i>	<i>Neen</i>	<i>Niken/ninen</i>
	<i>Dok/don</i>		<i>Yeen</i>
<i>Dau</i>	<i>Dik/din</i>	<i>Zeen</i>	<i>Ziken/zinen</i>
<i>Daau</i> <sup>46</sup>	<i>Jau/janau</i>	<i>Ginduben</i>	<i>Ginduken/gindunen</i>
<i>Dezu</i>		<i>Zinduben</i>	
<i>Dezai</i>		<i>Zindubein</i>	
<i>Dai</i>	<i>Diai/dinai</i>	<i>Zein</i>	<i>Zikein/zinein</i>

Eta Nor 'haiek' denean: 'ditut, dituk/n, ditu, ...; nituen, hituen, zituen, ...'.

orain		lehen	
neutroa	hitano/alokutiboa	neutroa	hitano/alokutiboa
<i>Tut</i>	<i>Jituet/jitunat</i>	<i>Nituen</i> <sup>47</sup>	<i>Nituken/nitunen</i>
	<i>Tuk/tun</i>		<i>(Y)ituen</i>
<i>Tu</i>	<i>Jituk/jitun</i>	<i>Zituen</i>	<i>Zituken/zitunen</i>
<i>Tuu</i>	<i>Jituaul/jitunau</i>	<i>Ginduzen</i>	<i>Ginduzeken/ginduzenen</i>
<i>Tuzu</i>		<i>Zinduzen</i>	
<i>Tuzei</i>		<i>Zinduzein</i>	
<i>Tubei</i>	<i>Jituaul/jitunai</i>	<i>Zitubein</i>	<i>Zituzkein/zitunein</i>

Eta gainerako pertsonen adizkiak ondorengo koadroetan jasoko ditut, baina ezer baino lehen esan behar dut Nor-Nori-Nork erako adizki berberak ditugula egun bakaikueran erabiltzen direnak, eta horrela jaso zituzten bai Ondarrak, bai Gamindek ere. Inzak, bestalde, gaur egun gutxienez erabiltzen ez diren ondorengoak jaso zituen: *nau*, *nazai* (nauzue), *zaitubei* (zaituztete), *zaitubai* (zaituzte), *zaitut*, ... Hemen, lehenik egungo orain aldikoak ditugu:

	ni	zu	hi	gu	zuek		
	neutroa hitan-alok			neutroa hitan-alokut			
nik		<i>Dezut</i>	<i>Duet/dumat</i>		<i>Dezait</i>		
hik	<i>Dak/dan</i>			<i>Dak/dan</i>			
hark	<i>Da Jak/jan</i>	<i>Dezu</i>	<i>Duk/dun</i>	<i>Gairu</i>	<i>Gairuk/n</i>	<i>Dezai</i>	
guk		<i>Dau</i>	<i>Duau/dunau</i>		<i>Dau</i>		
zuek	<i>Dazu</i>			<i>Gairuzu</i>			
zuek	<i>Dazai</i>			<i>Gairuzai</i>			
haiek	<i>Dai</i>	<i>Jail/janai</i>	<i>Dezai</i>	<i>Duail/dunai</i>	<i>Gairubai</i>	<i>Gairuaik/n</i>	<i>Dezai</i>

Lehen aldian, berriz, hauexek burutzapenak, baina aurrekoan esan dudan moduan ia berdinak Nor-Nori-Nork erakoekin:

<sup>46</sup> Pluraleko lehen pertsonaren adizkiak *-a-* luzea erabiltzen du, objektu pluralarekin *-u-* bokalarekin gertatzen den moduan: *tuu* (ditugu).

<sup>47</sup> Bi silabako burutzapenak ditugu singularreko adizkienak, hau da, /ue/ goranzko diptongo-dunak: *ni-tuen*, *(y)i-tuen*, *zi-tuen*.



	ni	zu	hi	gu	zuek	
	neutroa hitan-alok			neutroa hitan-alokut		
nik		<i>Nezun</i>	<i>Naken/nen</i>		<i>Nezain</i>	
hik	<i>Yaken/yanen</i>			<i>Yaken/nen</i>		
hark	<i>Zan Zaken/zanen</i>	<i>Ze zun</i>	<i>Zuken/nen</i>	<i>Zegun</i>	<i>Zeguken/nen</i>	<i>Ze zain</i>
guk		<i>Gindezun</i>	<i>Ginduken/nen</i>		<i>Ginduen</i>	
zuk	<i>Zindan</i>			<i>Zindan</i>		
zuek	<i>Zindain</i>			<i>Zindain</i>		
haiek	<i>Zain Zakein/zanein</i>	<i>Ze zain</i>	<i>Zukein/nein</i>	<i>Zegubein</i>	<i>Zegukein/nein</i>	<i>Ze zain</i>

- Nor-Nori-Nork era: orain aldia eta iragana. Objektu singularra eta Nori hirugarren pertsona singularra, ‘hari’, denean: ‘diot, diok/n, dio, ...; nion, hion, zion, ...’.

orain		lehen	
neutroa	hitano/alokutiboa	neutroa	hitano/alokutiboa
<i>Dat</i>	<i>Jat/janat</i>	<i>Nan</i>	<i>Naken/nanen</i>
	<i>Dak/dan</i>		<i>Yan/yanen</i>
<i>Da</i>	<i>Jak/jan</i>	<i>Zan</i>	<i>Zaken/zanen</i>
<i>Dau</i>	<i>Jau/janau</i>	<i>Gindan</i>	<i>Gindaken/gindanen</i>
<i>Dazu</i>		<i>Zindan</i>	
<i>Dazai</i>		<i>Zindain</i>	
<i>Dai</i>	<i>Jail/janai</i>	<i>Zain</i>	<i>Zakein/zanein</i>

Aurrekoaren berdina da Nori hirugarren pertsona plurala, ‘haiei’, denean (‘diot, diek/n, die, ...; nien, hien, zien, ...’), hots, burutzapen berberak erabiltzen dira dagoeneko bakaikueran. Soilik ‘nik’ pertsonaz osatutako adizki alokutiboa bereizten da : *jaubet / jaubenat* (*zieat / zienat*, ‘diot’ adizkiaren alokutiboa).

Eta objektu plurala denean, hauexek dira jarraian aipatuko ditudan adizkien burutzapenak: ‘dizkiot, dizkiok/n, dizkio, ...; nizkion, hizkion, zizkion, ...’.

orain		lehen	
neutroa	hitano/alokutiboa	neutroa	hitano/alokutiboa
<i>Datzat</i>	<i>Jatzat/jatzanat</i>	<i>Natzan</i>	<i>Natzaken/natzanen</i>
	<i>Datzak/datzan</i>		<i>Yatzan/yatzanen</i>
<i>Datza</i>	<i>Jatzak/jatzan</i>	<i>Zatzan</i>	<i>Zatzaken/zatzanen</i>
<i>Datzau</i>	<i>Jatzau/jatzanau</i>	<i>Gindatzan</i>	<i>Gindatzaken/gindatzanen</i>
<i>Datzazu</i>		<i>Zindatzan</i>	
<i>Datzazai</i>		<i>Zindatzain</i>	
<i>Datzai</i>	<i>Jatzai/jatzanai</i>	<i>Zatzain</i>	<i>Zatzakein/zatzanein</i>

Sinkretismo berbera dugu berriro, Nori ‘haiei’ pertsonarekin burutzen diren adizkien kasuan.

Eta gainerako pertsonen burutzapenetan ere, sinkretismoa da nagusi, baina oraingoan ez bakarrik era berdineko adizkien artean, baizik eta, lehen esaten nuen moduan, Nor-Nork era aditzkiekin ere bai: *datzazai* (dizkidazue, dizkiozue, dizkiguzue, dizkiezue), *datzai* (dizkide, dizkiote, dizkigute, dizkiote), *dai* (naute, dute, didate, diote, diete), *zindain* (ninduzuen, zenidaten, zenioten, zenieten), *zegubein* (gintuzten, ziguten), ...

## Zenbait aditz Sintetiko

Orain arte bezala, berezko jokamoldea duten zenbait aditzen burutza-penak jasoko ditut hurrengo koadroetan:

<i>ibili</i> 'eduki'		<i>jakin</i>		<i>yon</i> 'egon'		<i>fan</i> 'joan'	
orain	lehen	orain	lehen	orain	lehen	orain	lehen
<i>Dekat</i>	<i>Nekan</i>	<i>Dakit</i>	<i>Nekiyen</i>	<i>Nego</i>	<i>Negon</i>	<i>Niyua</i>	<i>Niyuen</i>
<i>Dekak/n</i>	<i>Yekan</i>	<i>Dakik/n</i>	<i>Yekiyen</i>	<i>Ago</i>	<i>Yegon</i>	<i>Uba</i>	<i>Uben</i>
<i>Deka</i>	<i>Zekan</i>	<i>Daki</i>	<i>Zekiyen</i>	<i>Doo</i>	<i>Zoon</i>	<i>Diyua</i>	<i>Ziyuen</i>
<i>Dekau</i>	<i>Gindekan</i>	<i>Dakiu</i>	<i>Gendekiyen</i>	<i>Gee</i>	<i>Ginden</i>	<i>Gazi</i>	<i>Gendazin</i>
<i>Dekazu</i>	<i>Zindekan</i>	<i>Dakizu</i>	<i>Zendekiyen</i>	<i>Zee</i>	<i>Zinden</i>	<i>Zazi</i>	<i>Zendazin</i>
<i>Dekazai</i>	<i>Zindekain</i>	<i>Dakizai</i>	<i>Zendekiyain</i>	<i>Zei</i>	<i>Zindain</i>	<i>Zazai</i>	<i>Zenduzain</i>
<i>Dekai</i>	<i>Zekain</i>	<i>Dakiyei</i>	<i>Zekiyain</i>	<i>Dee</i>	<i>Zeen</i>	<i>Dazi</i>	<i>Ziyuezain</i>

'Eduki' eta 'jakin' aditzek objektu plurala dutenean *-tza*- pluralgilea tartekatuz burutzen da bakaikueran, Altsasun eta Lakuntzan *-zki-*, Urdiainen eta Olaztin *-tzi-* eta Etxarrin eta Arbizun *-z-*: *dekatzat*, *dekatzak/n*, *dekatza*, *dekatzau*, *dekatzazu*, *dekatzazai*, *dekatzai*; *dakitizat*, *dakitizak/n*, *dakitza*, *dakitzau*, *dakitzazu*, *dakitzazai*, *dakitzai*.

Hurrengo hiru aditzak, soilik orain aldian erabiltzen dira era sintetikoan, eta iragana era perifrastikoan burutzen dute, eta hirugarrenaren kasuan erabateko sinkretismoa gertatzen da *ibili* 'eduki' aditzaren orain aldiarekin:

<i>ibili</i>	<i>yaman</i> (eraman)	<i>ekarri</i>
<i>Naile</i>	<i>Deat</i>	<i>Dekat</i>
<i>Abil</i>	<i>Deak/n</i>	<i>Dekak/n</i>
<i>Daile</i>	<i>Dea</i>	<i>Deka</i>
<i>Gailtza</i>	<i>Deau</i>	<i>Dekau</i>
<i>Zailtza</i>	<i>Deazu</i>	<i>Dekazu</i>
<i>Zailtzai</i>	<i>Deazai</i>	<i>Dekazai</i>
<i>Dailtza</i>	<i>Deai</i>	<i>Dekai</i>

'Etorri' aditza ez da era sintetikoan jokatzen bakaikueran (bai Burundako gainerako herrietan), eta horren ordez *eldu* 'heldu' aditza erabiltzen da, era perifrastikoan, Sakana erdialdean bezala: *eldu naiz* (banator), *eldu daiz* (bahator), *eldu da* (badator), *eldu gaa* (bagatoz), *eldu zaa* (bazatoz), *eldu zai* (bazatozte), *eldu dia* (badatoz).

## Bakaikuko aditzaren ezaugarri nagusiak

Hemen, laburbildurik, Bakaikuko aditzaren ezaugarri nagusiak aipatuko ditut bata bestearen ondotik:

- NN<sub>i</sub>NN<sub>k</sub> eta NN<sub>k</sub> erako adizkien arteko nahasketa. Ondoko Sakana erdialdeko zenbait herritan (Etxarri, Dorrao, Unanu, Arruazu eta Uhartre) ere horrela gertatzen da, baina badirudi XX. mendeko kontua dela nahasketa hau.
- Aditz era desberdinen pluralgileak:
  - NN<sub>i</sub> eran *-zki-* da erabiltzen den pluralgilea: *zaizkit*, *zaizkizein*, ...
  - NN<sub>k</sub> eran, berriz, *-it-*: *(di)tut*, *(di)tuzei*, *nituen*, *zitubein*, ...

- NN<sub>i</sub>NN<sub>k</sub> eran, *-tza-* pluralgilea erabiltzen da: *datzat, zindatzan, jatzanau, zatzakein, ...*
- Nork erako aditz trinkoek *-tza-* pluralgilea hartzen dute: *dekatzat, dekatzazai, dakitzau, dakitzai, ...*
- *Fan*, 'joan', aditz sintetikoaren Nor eran, *-zi* dugu pluralgilea: *gozi, zozai, zozai, dozi.*
- c) Pluraleko bigarren eta hirugarren pertsonen morfemak, *-zai (-zei)* eta *-ai (-ei)* dira: *dazai, dai, tuzei, zitubein, ...*
- d) NN<sub>i</sub>erako aditz laguntzailearen erroa *-i-* da orain aldian, baina *-ki-* iraganean: *zait - zakiten, zaio - zakiyon, zaigu - zakiun, ...*
- e) NN<sub>i</sub>NN<sub>k</sub>erako adizkien *-erau-* erroaren *-a-* bilakabidea dugu bakaikueran: *dat, da, dazu, dazai, dai, daubet, ...*
- f) NN<sub>k</sub>erako aditzaren kasuan, aldiz, nahasketa dago *-au-/eu-* erroak hartzen duen bilakabideari dagokionez, *-o-* eta *-e-*ren artean: *dot, dok-n, dezu, dezai.*
- g) *-gi-*z bukaturiko aditz partizipioak horrela mantendu dira: *ebagi, jagi, ...*
- h) *-atu* motatako partizipioak erabiltzen dituzte bakaikueran: *gustatu, gastatu, paatu, ...*
- i) *-n/-l* ondoren ere *-ko* morfema erabiltzen da etorkizuneko aspektuan, eta azken honi dagokionez, *-en* morfemaz ere burutzen da, aditza *-n-z* amaitzen denean: *inko, esanko, fanko, ...; jakinen, esain* (< esaen < esanen), *ilen* (hilgo), ...
- j) Ez dira ohikoak bakaikueran Sakana erdialdean sarritan erabiltzen diren partizipio analogikoak. Soilik kasu bat jaso dut horrelakoa: *biyeldu* (bidali). Baina: *yon, izan, jakin, ibili, ...* (ez *yondu, izandu, jakindu, ibildu, ...*).
- k) Ugari dira, bestalde, partizipioetako sinkopak. Mundiñanok ondorengoak jaso zituen: *ibil nituen, ibil ber zeaken, etor ber dik onutza, etor zieken, ekar zain, ekar ginduben, ekar tut, ikus dot.*
- l) Hitano alokutiboetako adizkien hasierako *-j*, mendebaldean bezala. Ugari dira horrela burutzen diren adizkiak: *jakl/jan* (naik/nain), *jail/janai* (naitek/naiten), *jaul/janau* (diagu/dinagu), *jituail/jitunai* (ditiztek/ditizten), ...
- m) NN<sub>i</sub>erako laguntzaileak iraganaldian *-a-* marka gordetzen dute bere burutzapenetan, ekialdeko hizkeretan sintetikoen kasuan gertatzen den bezala: *zakiten* (zitzaidan), *zakiyon* (zitzaion), *zakizein* (zitzaizuen), *zazkiyein* (zitzaizkien), ..296. Mundiñanok 'jakin' aditzaren burutzapen bakarra jaso zuen *-a-*duna: *enakiken* (ez nekien, alokutiboa). Nik *-e-*dunak jaso ditut guztiak: *nekiyen, yekiyen, zekiyen, ...*

## SINTAXI MAILAKO EZAUGARRIAK

Ez dira dialektologiaren historian oso erabakiorrak suertatu ezaugarri sintaktikoak, baina ez garrantzirik ez zaielako aitortu, gure herriaren mutur batetik bestera oso urriak direlako erabat desberdinak direnak baizik. Nik bakaikuerak gehien erabiltzen dituenak jasoko ditut hemen, eta bildumatxo honek erakutsiko digu ez direla inondik ere bereizgarriak inguruko beste hizkerekiko.

## Harridurazko esaldiak

Oso modu desberdinetan, beste txokoetan bezala, burutzen da harridura bakaikueran: interjekzioen bidez, erakusleak eta galdetzaileak erabiliz, *bai* partikularekin, konparatzaileen medioz, bokatioaz eta beste era batzuk erabiliz.

Ondorengoak ditugu interjekzio zenbait: *Iyundienak!* (Inon direnak!, harridura adieraziz), *Orixe! Konto! Nai likek! Bienke!* (Horixe! Kuantu! Nahi luke! ¡Desde luego!, esaten ari zaigunarekin erabateko adostasuna adierazteko), *Beajundaikela!* (Bejondaizula!, ongi iruditzen zaigun zerbaiten aurrean esateko), *Eutekio!* (auskalo, jakin ezazu), *Balinbada!* (Baldin bada!, horrela beharko duela izan adierazteko), *Giore!* (Gero ere!, eraginik edo harridurarik eza adierazteko), *Obia dok utsa!* (Hobe duk hutsa!, gaztelerazko ‘más te vale ...’), *Kosta ala kosta!* (gaztelerako ‘cueste lo que cueste’).

Erakusleak eta galdetzaileak erabiliz burututakoak, aldiz: *Ura jendezkua etor dana!* (Hura jendezkoa etorri dena!), *Oik tuk jende klasiak!* (Horiek dituk jende klaseak!), *Ori gizon aundiya!* (Hori gizon handia!), *Ai, au polita!* (Ai, hau polita!), *Ze polita (dan)!* (Zer polita den!), *Zeinen txikiya!, ...*

Eta *bai* partikula, konparatzeileak, bokatioak eta bestelakoen adibideak ondoren datozenak: *Bai etorri re!* (Bai etorri ere!), *Bai inozentia, ura!* (Bai inuzentea, hura!), *Politokua zaken!* (Politagokoa zuan!), *Izan zaken onoo!* (Izan zuan onago!), *Mutikua!, Andria! Ago isilik, mesedez!, Esker-rak ezan ezere gertatu!, Etorko balitzake sikia!* (Etorriko balitz sikiera!), *Ausiko baluke buruba sikia! Ausiko al dok buruba!*<sup>48</sup> (Hautsiko ahal duk burua!), *Ago isilik demonio pelmia!*<sup>49</sup>.

## Koordinazioa

Lau koordinazio motatako juntagailuak aztertuko ditut, eta horietako bakoitza esaldi batean txertatuko dut bere erabilera ikusteko bakaikueran:

- Emendiozko juntagailuak ondorengoan dira Bakaikun: *(e)ta (da), re, (e)re bai, (e)re ez, baita ... (e)re, ezta ... (e)re.*

*Zek fun da belaxe etor tuk oik!* (Zuek joan eta berehalaxe etorri dituk horiek!)

*Ura re ezaken makala!* (Hura ere ez zuan makala!)

*Deskuidatzen badaiz artu re bai!* (Deskuidatzen bahaiz hartu ere bai!)

*Ezta naita re!* (Ezta nahita ere!)

<sup>48</sup> Partikula honekin, *al* (ahal), desio handia edo besteren bati kaltea opatu ere bai askotan, adierazten da. Egitura *-ko al* (ahal) izaten da: *Ilko al daiz!*. Azkuek (1969, 501) interjekzioak aztertzerakoan horrela jaso zuen: “4º Maldicientes, sí, las hay todvía, y que guardan cierto género de ritual para que sus imprecaciones lanzadas contra algún enemigo (...), y luego ¡A’ren! Itoko alda ¡voto, ojalá se ahogé!, ¡ezalda gebiago oetik yagiko! ¡ojalá no se levante más de la cama! ... etc., etc.”.

<sup>49</sup> Gaztelerako “pelma del demonio”-ren parekoa izango genuke.

- Hautakariei dagokienez, ez da *ala* juntagailua erabiltzen bakaikueran (Sakana erdialdean ere ez), *o(o)* (edo) baizik. Eta juntagailu hau tesuinguru guztietan erabiltzen da, aukeraketa egiterakoan eta guzti:

*Pasatu nituzken laurogeita sei o berrogeita sei urte.* (Transkribaketa)  
*Zenbat nai tuk, bi o iru?* (Zenbat nahi dituk, bi al hiru?)

- Aurkaritzakoen artean, hauek erabiltzen dira: *bea* (baina), *ala (e)re* (hala ere), *salbotan* (salbuz ere, salbutan), *ba- ... (e)re, berriz, ordia* (ordea, izan ere), *besterik, ezpada* (ez bada), *ez beste, -(e)ngaiti bakarrik* (-z bestela, -z baizik, -z bakarrik), *beste gairakuen* (beste gainerakoan), *ezezere* (ez ezik).

*Bea neri txerriyek mendiyan otsuek jan!* (Transkribaketa)

*Bai, bea egurrezkua, e?* (Transkribaketa)

*Guu amak ala re talo piskat jarri!* (Gure amak hala ere talo piska bat jarri!)

*Salbotan i yoten daiz, ba, beti kontra!* (Salbutan (izan ere) hi egoten haiz, bada, beti kontra!)

*Eztok gauza onik iten, ordia!* (Ez duk gauza onik egiten, ordea!)

*Korrikan ezpada, ez naiz ailatuko!*

*Zek ez beste guziek jekiai!* (Zuek ez beste guztiek zekitek!)

*Ama beste gairakuen ezta iyore agertu!* (Ama beste gainerakoan ez da inor ere agertu!)

*Lana ezezere gogua re bagindekan orduben!* (Lana ez ezik gogoa ere bagenuen orduan!)

- Eta, azkenik, perpaus banatzaileak ohiko moduan eratzen dira: *bai ... bai ..., ez ... ez ..., nola (ala) (bai) ... nola ..., aldiateti ... ta besteti ...* (alde batetik .... eta bestetik).

*Aldiateti aizkoakin, eta besteti borrarakin, naiko egur txikitzen diet!* (Alde batetik aizkorarekin, eta bestetik borrararekin, nahiko egur txikitzen diat!).

### Bakaikueraren menderagailuak

Ez ditut hemen mendeko perpaus mota guztien berezitasunak azalduko, sintaxiaren atal honen hasieran esaten nuen moduan oso antzekoak izaten baitira sintaxi mailako burutzapenak hizkera gehienetan. Hala ere, guztien adibideak emango ditut, eta bereziak direnean menderagailuak zehatza azalduko ditut.

- Osagarrien funtzioa betetzen dutenen artean, hauexek dira erabiltzen diren menderagailuak: *-la, -nik, -t(z)ia* (-t(z)ea), *-t(z)eik, -t(z)ez, -t(z)ea* (-t(z)era) *eman, -t(z)en jakin / utzi / lagundu, (iya) ... -n* ((ea) ... -n), *-n o(o) ez* (-n ala ez), ...

*Esan dau etorko dala.* (Esan du etorriko dela)

*Eztuet esan yos dotenik!* (Ez dizut esan erosi dudanik!)

*Zei gustatzen zaizei etxia garaiz fatia.* (Zuei gustatzen zaizue etxera garaiz joatea)

*Eztekat ola ibiltzeik!* (Ez daukat horrela ibiltzerik!)

*Aspertuik negok beti gauza bat itez!* (Asperturik nagok beti gauza bat egitez!)

*Gaizki itzeitia baindo obia isilik yotia!* (Gaizki hitz egitea baino hobe isilik egotea)

*Artua eraitetik autzi in dai!* (Artoa ereitetik utzi egin dute!)

*Bajekik egurra txikitzen!* (Bazekik egurra txikitzen!)

*Euskeaz itzeiten yakusko jau!* (Euskaraz hitz egiten erakutsiko zioagu!)

*Atrebitu dok tabernaa sartzen!* (Atrebitu duk tabernara sartzen!)

*Etxien sartzen autzi gairubaik.* (Etxean sartzen utzi gaitiztek)

*Bitxuoiri jatea ematea!* (Bitxo horiei jatera ematera!)

*Oya iten lagundu janat!* (Ohea egiten lagundu zionat!)

*Galdetu jai iya inen doken!* (Galdetu zidatek ea eginen duan!)

*Eztaki ikus daun o ez!* (Ez daki ikusi dugun ala ez!)

- *-n* eta *-tako* (*-dako*) dira erlatiboazko menderagailu erabilienak, baita leku-denborazko erlatiboetan ere.

*In doken lana eztok naikua!* (Egin duan lana ez duk nahikoa!)

*Guk ekarritakua da ardua!* (Guk ekarritakoa da ardoa!)

*Bazan garai bat jendeik ere ezana agertzen!* (Bazen garai bat jenderik ere ez zena agertzen!)

*Bajok toki bat bonbila re ezaina ezautzen!* (Bazegok toki bat bonbila ere ez dutena ezagutzen!)

- Ugari dira denborazko perpausetan erabiltzen diren menderagailuak, eta hemen soilik aipagarri iruditu zaizkidanak jasoko ditut: *-n bitartio*, *-n laurriyen*, *baindo lenuo*, *orduko*, *-t(z)iako*, *-niako*, *-neti*, *ondorien*, *ta segiduen*, *partizipioa + ta gio*, *partizipioa + ta agudo*, *partizipioa + ta bela*, *eta guaixe*, *-t(z)iekin batia*, *besteik ez*, *berritan*, *-n ezkiroz*, *partizipioa + ezkiroz*, *-n artio*, *ak eta ... artio*, *nundi ta ... ezpa- -t(z)en*,...

*Gitarria jotzen dain bitartio, dantzatu inko dau!* (Gitarra jotzen duten bitartean, dantzatu egingo dugu!)

*Aunditzen daizen laurriyen obeto ikasko dok!* (Handitzen haizen neurrian hobeto ikasiko duk!)

*In baindo lenuo ikasi ber don!* (Egin baino lehen ikasi behar dun!)

*Ailatu orduko esan zakein!* (Ailegatu orduko esan zidatean!)

*Etxia fatiako akatuik yonko da.* (Etxera joaterako akabaturik egongo da)

*Ikasten dauniako eztau balioko!* (Ikasten dugunerako ez du balioko!)

*Ailatzen zaneti asi berko za lanien!* (Ailegatzen zarenetik hasi beharko zara lanean!)

*Bazkaldu ondorien fanko gaa!* (Bazkaldu ondoren joango gara!)

*Afaldu ta segiduen oiya fan gindaken.* (Afaldu eta segituan ohera joan gintuan)

*Afaldu ta gio fan gindaken oiya.* (Afaldu eta gero joan gintuan ohera)

*Afaldu ta agudo oiya fan re!* (Afaldu eta agudo ohera joan ere!)

*Aitu ta bela barreiatu zen!* (Aditu eta berehala barreiatu zuen!)

*Aitu orduko barreiatu zen!*

*Gizona ailatatu ta guaixe ikusten dau apiza ataiyen lasei, ola bota da ...*  
(Gizona ailegatu eta oraintxe ikusten du apeza atarian lasai, horrela bota dio ...)

*Ailatziekin batia ola bota zan ...* (Ailegatzearekin batera horrela bota zion ...)

*Ailatatu besteik ez ola bota zan ...*

*In berritan jakiten dok!* (Egin berritan jakiten duk!)

*Zinia akatu zaneti enok yon!* (Zinea akabatu zenetik ez nauk egon!)

*Zinia akatu dan ezkiroz enok yon!* (Zinea akatu denez geroz ez nauk egon!)

*Zinia akatu ezkiroz enok yon!*

*Etortzen zaan artio ez gaa mugituko!* (Etortzen zaren arte ez gara mugituko!)

*Ak eta zek etorri artio ez gaitun mugituko!* (Harik eta zuek etorri arte ez gaitun mugituko!)

*Nundi ta ber bezela expadezai iten eztik balio!* (Nondik eta behar bezala ez baduzue egiten ez dik balio!)

- Moduzko menderagailu erabilienak, berriz, haucek ditugu: *-n bezela / moduben / eran, -n legea / modua/ eraa, -n modukua / kisakua, -nez, -n arua, -la, ba- ... bezela, ...*

*Etor zan bezela fan berko za!* (Etorri zaren bezala joan beharko zara!)

*Esan dain moduben in berko dau!* (Esan duten moduan egin beharko dugu!)

*Esan dain legea in berko dau!* (Esan duten legera egin beharko dugu!)

*Yos daun modukua dok ori!* (Erosi dugun modukoa duk hori!)

*Yos daun kisakua dok ori!* (Erosi dugun gisakoa duk hori!)

*Esan dain arua, ori ola dok!* (Esan duten arora, hori horrela duk!)

*Txapela eskuten dekala fan da!* (Txapela eskuetan daukala joan da!)

*Konto beak dekiyen bezela guzia ibiltzen don!* (Kunto berak dakien bezala guztia ibiltzen dun!)

- Perpaus konparatiboetan, *bezin* (bezain), *-oo* (-ago), *-oko* (-agoko), *baindo ... -oo* (baino ... -ago), *konto ... -n/-la* (kuanto ... -n/-la), ... dira bakaikueran gehien erabiltzen diren menderagailuak.

*Zen etxia guria bezin aundiya don!* (Zuen etxea gurea bezain handia dun!)

*Mugimendu geyokue; libertade gayo ta zea gayokok; erriya re geixokua; guai lenokuek ee geindo re baya, ba lenuo, geyo.* (Mundiñanok jasoak).

*Aundiyoekuek re erori tuk!* (Handiagokoak ere erori dituk!)

*Olaztin baindo jende gayoo yon zaken!* (Olaztin baino jende gehiago egon zuan!)

*Konto beste iyork eztakiyen/eztakiyela!* (Kunto beste inork ez dakien/dakiela!)

- Helburuzko menderagailurik erabilienak *-t(z)eko* eta *-t(z)egaiti* ditugu.

*Amak esan jak suba iteko!* (Amak esan zidak sua egiteko!)

*Gaubien atatzegaiti in tu lan guziek!* (Gauean ateratzeagatik egin ditu lan guztiak!)

- Ugariago dira kausazko esaldietan erabiltzen diren menderagailuak: *-lako(z)*<sup>50</sup>, ... *eta*, *-n ezkiuz, zengaiti ... -n, nolabait ... -n, ...*

*Oik esan dailakoz eztok egiya izan ber!* (Horiek esan dutelako ez duk egia izan behar)

*Eztuk atatzzen etxeti zarrak tuk eta!* (Ez dituk ateratzen etxetik zahar-  
rrak dituk eta!)

*Erriyen ezigukien auzten da, Itzalkoa, yantza; orrutza asi gindaken da; In zen abiona ganbaragoikuen eta in zen da, ata in ber bolatzeko.* (Mundiñanok jaso)

*Emen geen ezkiuz ikusko dau!* (Hemen gaudenez gero ikusiko dugu!)

*Nolabait eztan etorri eztau afalduko!* (Nolabait ez den etorri ez du afalduko!)

*Nólapait eztakiyén éztik esein.* Echaidek (1989, 301) jaso.

*Etxia fan da zengati eztazun ots in!* (Etxera joan da zerengatik ez diozun hots egin!)

- Baldintzazko esaldietako menderagailuak ohikoak dira: *ba- ... -kol-en, ezkiuz* (-z gero), *-t(z)ekotan, ...*

*Garaiz etortzen bazaa alkarrekin fanko gaa basua!* (Garaiz etortzen bazara elkarrekin joango gara basora!)

*Itekotan ongi iteko!* (Egitekotan ongo egiteko!)

- *Bea* (baina), *-iyagaitik* (-agatik), *-ta re* (-ta ere), *naiz ta* (nahiz eta), ... menderagailuan erabiltzen dira esaldi kontzesiboak burutzeko.

*Ura zaken gizon isisila bea, ba, asten zanién ola ...* (Transkribaketa)

*Zuk ola esaniyagaitik ezan ola gertatu!* (Zuk horrela esanagatik ez zen horrela gertatu)

*Beandu fanda re lanak iten zituben!* (Berandu joanda ere lanak egiten zituen!)

*Naiz ta beandu etorri lanak iten zituben!*

- *Eta* kontsekutiboai dagokienez, ez da inongo berezitasunik nabari Bakaikuko hizkeran:

*Ain aundiya zan irrutiti ikusten zakiyola!* (Hain handia zen urrutitik ikusten zitzaioa!)

*Ainbeste diru deka etxien ez zaiyola sartzen!* (Hainbeste diru dauka etxean ez zaiola sartzen!)

<sup>50</sup> Zuazok (1995, 340) "Etxarrin hasi eta handik ekialdera bildu dugu *-lakos* atzizkia (*-lako*-rekin batera)" esaten du, baina nik Pedro Miguel Kintanari zehazki galdetu eta bukaerako txistukaria argi eta garbi duen burutzapena jaso diot. *Eta* etxarrieraren eraginagatik balitz hortzobietako igurzkaria jaso beharko nuke eta ez bizkarhobietakoa.



BAKAIKUKO LEXIKOA

Ez da nire asmoa atal honetan bakaikueraren lexiko bilduma jasotzea, ederki asko burutu baitzuen urte batzuk lehenago Francisco Ondarra Erdoziak (RSVAP, 1965) lan hori. Nik dialektologiaren ikuspegitik interesgarriak izan daitezkeen emaitzak azaldu, komentatu eta inguruko Sakana erdialdekoekin konparatuko ditut, horrela bakaikuera beraren izaera zertxobait azpimarratu nahian.

Egutegiarekin zerikusia duten hitzen kasuan (asteko egunak, hilabeteak, urtaroak), Burunda osoan hedatuak ditugu, eta ia guztiak bat datoz Sakana erdialdekoekin, ezen asteko egunetako bat, *domekia* (*iyende* Sakana erdialdean), baino ez baita modu desberdinean burutzen: *astelen, astiarte, astezkin, ostegun, ostiele, lanbat, domeka; ilbeltz, otsail, marsu, apiribil, mayatz, garagarri, garil, abuztu, urri, lastail, azaro, abendu; primabera, uda, udätzen, negu*.

Gainerako lexikoa, orokorrean, Burundakoa izango genuke F. Ondarra (1965), K. Izagirre (1967, 45-97), K. Zuazo (1995, 342-354), J.M. Arakama (Sakanako euskaraz, lan argitaragabea) eta I. Mundiñanoren (Bakaikuko euskara, lan argitaragabea) azterketek erakusten duten moduan. Hala ere, Burunda eta Sakana erdialdeko muga fisikoa Etxarri-Aranatzekin burutzeaz gain, badirudi hizkerarekiko zubi lanak ere betetzen dituela, bat edo bi baino gehiago baitira Sakana erdialdeko lexikora hurbiltzen duten burutzapenak, *Continuum geolektala*-ren teoria jarraituz, hurrengo zerrendan ikusi ahal izango dugun moduan. Hiru zutabetan jasoko dut Sakana aldeko lexiko zati bat, esan berri dudana baieztatzeko asmoarekin: lehen zutabean, Burundako burutzapena jasoko dut; bigarrenean, Bakaikukoa; eta, hirugarrenean, Etxarri-Aranazkoa. Azkenik, erabat eskuinean, batuako burutzapena jarriko dut.

<i>BURUNDA</i>	<i>BAKAIKU</i>	<i>ETXARRI</i>	BATUA
<i>kurutza</i>	<i>kurutza</i>	<i>guutze</i>	gurutze
<i>kendu</i>	<i>kendu</i>	<i>gendu</i>	<i>jendu</i> kendu
<i>gilda</i>	<i>kaixa</i>	<i>gildde</i>	gerezi
<i>kipula</i>	<i>tipula</i>	<i>tipule</i>	tipula
<i>orri</i>	<i>osto</i>	<i>osto</i>	hosto
<i>musti</i>	<i>musti</i>	<i>busti</i>	busti
<i>narru</i>	<i>larru</i>	<i>larru</i>	larru
<i>nazka</i>	<i>lazka</i>	<i>lazka</i>	nazka
<i>aurri</i>	<i>laurri</i>	<i>laurri</i>	neurri
<i>karia</i>	<i>karia</i>	<i>galtziña</i>	kare
<i>bedar</i>	<i>belar</i>	<i>belar</i>	belar
<i>barre</i>	<i>barre</i>	<i>farra</i>	barre
<i>iyó</i>	<i>iyó</i>	<i>itzoo</i>	igo
<i>txixa</i>	<i>txixa</i>	<i>pixa</i>	txiza
<i>ura</i>	<i>ura</i>	<i>utse</i>	ura
<i>mutxikan ibili</i>	<i>mutxikan ibili</i>	<i>jolastu</i>	jolastu
<i>itaina</i>	<i>itaina</i>	<i>izeine</i>	izain
<i>sagona</i>	<i>xagonia</i>	<i>jabona</i>	xaboi
<i>yan</i>	<i>yan</i>	<i>yaman</i>	eraman
<i>obeto</i>	<i>obeto</i>	<i>obeki</i>	hobeki, hobeto
<i>ondo</i>	<i>ondo</i>	<i>aungi</i>	ongi, ondo
<i>polito</i>	<i>polito</i>	<i>poleki</i>	poliki, polito

<i>txarto</i>	<i>txarki</i>	<i>txarki</i>	txarki, txarto
<i>jostaiya</i>	<i>jostaiya</i>	<i>ostotsa</i>	ostots, trumoi
<i>jorratu</i>	<i>forratu</i>	<i>forratu</i>	jorratu
<i>aulubi</i>	<i>marrubi</i>	<i>marrubi</i>	marrubi
<i>izeko</i>	<i>izeba</i>	<i>izeba</i>	izeba
<i>barru</i>	<i>barru</i>	<i>barne</i>	barne, barru
<i>bultzurrinak</i>	<i>bultzurrinak</i>	<i>gultzurriñek</i>	giltzurin
<i>masurta</i>	<i>masurtia</i>	<i>masusta</i>	masusta
<i>okela</i>	<i>okela</i>	<i>aragiye</i>	haragi, okela
<i>korrika</i>	<i>korrikan</i>	<i>laxterkan</i>	korrika, lasterka
<i>autzi</i>	<i>autzi</i>	<i>autzi</i>	utzi
<i>irruiti</i>	<i>irruiti</i>	<i>irruiti</i>	urruti
<i>gabinari</i>	<i>gaubeinaria</i>	<i>iñerexagu</i>	saguzahar
<i>amandre</i>	<i>amandria</i>	<i>amiña</i>	amona
<i>aitajauna</i>	<i>aittuna</i>	<i>aittune</i>	aitona
<i>itojina</i>	<i>itufaria</i>	<i>ittefure</i>	itogin
<i>gaztai</i>	<i>gaztaiya</i>	<i>gazta</i>	gazta
<i>txindurri</i>	<i>txindurri</i>	<i>txingurri</i>	inurri
<i>autsi</i>	<i>auski</i>	<i>auski(n)</i>	eutsi
<i>oea</i>	<i>oiya</i>	<i>guatze</i>	ohe, ohatze
<i>izera</i>	<i>izara</i>	<i>menddere</i>	izara, maindire
<i>ira</i>	<i>iyostorra</i>	<i>ixtorra</i>	ira, iratze, iraztor
<i>pitsa</i>	<i>aparra</i>	<i>aparra</i>	apar, bits
<i>igualaizia</i>	<i>ubalaizia</i>	<i>zapoziyela</i>	igela
<i>esene</i>	<i>esene</i>	<i>esne</i>	esne
<i>kunkun</i>	<i>kunkun</i>	<i>kunkun</i>	apo

## BAKAIKUERA: ONDORIOAK

Ez dago duda izpirik bakaikuera Burundako hizkeraren barruan kokatze-ko orduan, horrela erakusten baitu jarraian azalduko dudan ezaugarri laburpenak: bokalismo eta kontsonantismoan ( $-a + -a > -ia$  disimilazioa, asimilazioa ez da beti gertatzen,  $-ei- > -ai-$  diptongo irekiera oso emankorra da,  $e > a / \_ r$  bilakabidea maiztasun handikoa da, aferesi eta sinkopa eza, palatalizaziorik eza,  $-nd-$  kontsonante taldearen ugaritasuna, kontsonante txandaketak, ...); izen eta aditzaren morfologian (datibo pluraleko morfema  $-airi$ , edute genitiboaren morfema plurala  $-ein$ , soziatiboan  $-kin$ , instrumentalean  $-z$ ,  $-to$  atzizkidun aditzondoak, aditzaren pluraleko 2. eta 3. pertsonen  $-ei / -ai$ , aditzen pluralgileak, hitano-alokutiboetan  $j-$ ,  $NN_k$  erako adizkietan  $-o-$  eta  $-e-$  erroak,  $-atu > -au$  bilakabidea partizipioetan, ...); eta azkenik, sintaxiari dagokionez (ez dira erabiltzen  $-lakos$  eta bait-kausazko menderagailuak eta bai 'zengaiti / nola-bait ... ( $-en / eta$ )' modukoak,  $-t(z)era$  eman bezalakoak,  $-agokoa$  konparatiboetan, ...). Lexikoaren ezaugarriak ikusi berriak ditugu.

Hala ere, gogoratu nahi izango nuke Burundako hizkera ez dela batere erraza<sup>51</sup> Euskal Herriko euskalki multzo batean kokatzen. Are gehiago, zubi-

<sup>51</sup> K. Zuazo (1995, 360): "Zailago eta korapilatsuago begitantzen zaigu Burundako hizkeraren sailkapena. Badu honek Nafarroako hizkeretik loturarik. Gipuzkeretik kidetasunak ere nabari zaizkio lantzean behin, baina harrigarria da, era berean, Araba eta bizkaieraren eremuko hizkerekin batzen duen ezaugarri kopuru hazia. Ez zebilen oso oker, beraz, Damaso Intza (1920-22: 66) 'bere -berezko euskera dela Burunda guzikoa' zioenean".

hizkeratzat hartu dute dialektologia mailan egin diren azken ikerketek (Zuazo, 1995; Erdozia, 2001), eta zubi lan horiek mendebaldeko eta erdialdeko hizkeren artean egiten ditu gehienbat, nafarrerako zenbait ezaugarri ere ageri dituelarik. Eta bakaikuera bete-betean sartzen da burunderan, baina nafarrerarako zubi lanak areagotuz, hots, aldameneko Sakana erdialdearekiko gainerako Burundako herrietako hizkerak baino kidetasun gehiago erakusten ditu.

- Bokalismo eta kontsonantismoa:
  - Bakaikun *dena, denak denok* dira zenbatzaile orokorraren burutzapenak Sakana erdialdean bezala.
  - Badira zenbait aferesi eta sinkopa bakaikueran, Sakana erdialdean hedatuen agertzen direnak: *tal/da, re, o, jito, zazu, toz, txikoriya, kordiona, andria, bedratzi, sobre, txertxai, pezta, ekarko, etorko, ...*
  - Zenbait kontsonante txandaketak, nafarrerara hurbiltzen dute bakaikuera, Burundakoaz aldunduz: *tipula, larru, lazka, laurri, belar, forratu, auski, ...*
- Morfologia:
  - Soziatiboan bukaerako sudurkaririk gabeko burutzapenak entzun daitezke: *ardiyeki*.
  - Lehen aldiko zenbait adizkitan *-e*-ren ordean *-i*- ageri da Bakaikun: *ginduben, zinduben, ...*
  - Badira Bakaikun *-ki*-dun aditzondoak (Burundan *-to*-dunak guztiak): *gaizki, txarki*.
  - NN<sub>i</sub> erako aditz laguntzailearen erroa *-ki*- da lehen aldian bakaikueran, Sakana erdialdean bezala: *zekidan, zekizun, zekion, ...*
  - NN<sub>i</sub>N<sub>k</sub> erako aditzaren pluralegilea *-tzi*- dugu Burundan, eta *-tza*- Bakaikun eta Etxarrin: *datzat, ...*
  - Aditz partizipioetan ez da Bakaikun Burundako *-atu* > *-au* bilakabidea gertatzen, Altsasun bezala: *gustatu, faltatu, ...*
- Sintaxia:
  - Kausazko esaldietan badirudi *-lako*z menderagailua erabiltzen dela Bakaikun: *Oik esan dailako*z ...

## TRANSKRIBAKETA

Informatzailea: **Pedro Miguel Kintana Ondarra**, 74 urte.

Herria: **Bakaiku** Eguna: 2001-04-10

Bakik emen, txerri guziek e, il da. Jendie faten zaken txerriyeiri kasueittia. Bea emen apizaan e, bizilaguna, lana gizonak eta ezin fan. Fan dok egun batien da, txerriyek zotolan denak illik. Ta apiza aldamenekua ta jaitxi dok menditi, ta apiza ataiyen lasei bestia gosaldue bee, ta ezere in bee geina, baakik, txerriyek otsuek ilda. Joño, Franzisko! Eldu zaa menditi? Ta, bai eldu naiz! Ta, txerriyek ongi dee? Ta, bai txerriyek oso ongi dee! Beiratzen jak ola apizei ta: Zuk eperrai, pin! Ta usuei, pan! Bea neri txerriyek mendiyen otsuek jan! (...)

Emengo festatan beti juergan! (Nola izeten zien ba, ordubene?) Bueno, ordubene, e, baakik, een guzia juergan, da gaubien belarretaa lo itia! Ta goi-

zien dianaa fan ber! Diana jotzia ez paitza faten, boteila bat anis paatu ber, da booo, mundu guzia loik in bee gio or belar tatién dena, dena zapua loik ezin in, bua, festa guziek baldatuik, geatze itzen baldatuik, bea bea ilabete batiako. (...)

Gio beste aldi batian akordatzen nok, jo, gose denborartan, Ataungua fan txerriyek bila, ta, ba, amak igual talo piskat jarri ta urdei piskoon bat, ta ura Auntzetxe ailatu orduko jan. Een guzien gosiek, da dio, alako lekutan ikus nituzken ba nik sagarrak. Sagardia faten nok, sagarra berde-berdia. Iyotzen nok sagar batia, mekabuen, etortzen dok an baserrii atso zar bat. Eeee! Emen, emen lapurra! Antonio! Etorri, etorri! Mekabuen, da guai ni ze in ber diet emen! Dios! Etxekat beste erremeyoik! Andra zarrarren geinaa salto in, jo ankakin andra gaixura, ta zarra zaken, an ziderrien bueltakan. Da ni aiba dios artu ta etxiaindo ailatu bee. Gosia kentzegaiti bakarri, e? (Ze izeten zien reinetak eta ola saarrak?) Bai, ordubén yoten ziekén an! Etxekiet ni ze, ordubén ez gindekin ze zien ez reinetak eta ze zien, sagarrak bakarrik zan. Ordubén ez gindekin ezta ezere.

(Ta txondar lanetan da ibildu zaa sekule?) Bai, bai! (Ta nola eitten ziñubien ori? Txabolan da ola yooten ziñien lotan?) Ba, bai, txabolan lo in, autza fan, een guzien e ibili, zea txikitzen, egurra txikitzen, da bueno. Ta goizien, gosaitako babak, eguerdieyén babak, ta gaubien babak! Klaro urtiayek ala ittubén, e, ala ziekén, gosia ta gio lo itea. Gio egurrura bildu, gio egurrura ola egurrezko astoatzukin, ta an kargatu ta txondorra in ber zen lekuaa. Ta zelei bat in lenbizi, gio an e, egurra montondu, ta bota orbela geina, ta gio lurra ta su eman, ta gio gaubaz txondorria bijilatzia. Klaro gu gaztiek, e, gu ze, bakarren batekin fan ber, da an betegarriya o sartzen txondorrei geineti, ez erretzegaiti geiyei. Bea, o, bizimodu txarra, boo, lan asko ta ... (Pelakiye ta ibiltzen ziñubien?) Bai, bai. (Pelakiye, zer zan ori? Medialuna antzekuat?) Bai, bea egurrezkua, e? Trunki kozkor batekin aizkoriekin in olako medialuna antzeko bat, zulo bat in da sartu an egur bat, ta arrekín, arrekín ikatza ataatzen da, klaro gio, txondorra aundiya izatién, bea erretzien iten zaken erdiya bajatu. Gio ura, gaineti lurrura dana kenduta ikatza ataatzen. (...)

Nik ordubén ibilko nituzken amazazpi urte, zengaiti amazortzi urtekin asi nintzaken Zementosen, da an yon nok berrogeita sei urte. Zementosen sartu ta ak eta jubilatatu artio. Berrogeita sei urte. Bai, ilan o, berrogeita bostien asi nintzaken lanien, apiribilan amaseyén ta geatu nintzaken noventayunuen, laurogeita amaikan otseillen. Pasatu nituzken laurogeita sei o berrogeita sei urte. (...)

Gio, guai len esan dauna, euskeria au ya dok diferentia, ta aurrakin da itz iten dok bea beste alde batia. (...) Andriek etxekik (...) Yon balitza nee ama bizik o nee aita, aiki bai, aiki taka taka taka emengo izkeria bea, ni bakarrik emen. Urte askotan geyo eztaiu euskiaz in ere, ezta in ere. Proibitu ziekén da dana ... Je, aldiyén bein ibiltzen deiz ba, jende zarrakin emen, bueno emengo jendiekin zarrakin danakin euskiaz, danakin! Nee edadeti gorakuek, klaro ya asko etxek, bea danakin euskiaz. Nee edadeti bera etxekik iyork ee. (...)

Etxarrin, Etxarrin, esana asko jek, buu! Bai, bai, an yoonko tuk! Ortako etxarriarrak ortako emengo jentie bairdo geiyo ziekén. Etxarriarrak irugarren izena lixto jartzen zein bati, e? Belaxe, tapa! (...) Guu osaba batek esaten ziekén emengo ... Koño, Arazelin aita, Nikolas! Aik ere gazte gazteteti beti

lanien da, baziaken lania sobre lekun batia, ta esan zienen: “oye ten cuidau aquí, que aquí enseguida te ponen sobrenombre, ¿e?”. Ta, je, “¿de mi poca leche sacarán!” Da, gio ‘pokaletxe’ beai! Ta arrek e, esaten ziyen, Zaragozan ai emen zienen lanien. Ta sekura bat, buenooo! Ta ataa zienen amabirjinia erro-gatibek itia, iye auriye iten zeen! Iten dik prozesiyua, mekabuendiez! Kristoon auriye yutsina, bea arriya ta zienak eta eztienak. Da mañoon bat esaten emen zaken gio amabirjiniai: “¿No ves, no ves, cabeza de ostias! ¿Lo que nos has hecho! ¿Tanto llamarte, tanto rezar, mira lo que nos has hecho, cabeza de ostias!” Osabak esaten ziken, jo! Ura zaken gizon bat isisila, bea, ba asten zanién ola, karo mundu asko rekorritu o ibilita, ta tragotxuet yaten zenien, pues akordatzen zein danak. Beira izain zan gizonura ona! Etxia goizeko ordubatan fan tabernati, ta izebak: Nikolas, bea nun yon zaa guai artio? Eztikizu eztekatela egurrik ausiik eta guai ordubata eta biyer zortzitako lania fan ber dezua ta! Buaa, orrekin apuratzen zaa? Trankilo! Okulua fan da fixtuba gizona fi fi fi, egurrak austen dinbi-danba! Nikolas bea zoazi oyira biyar lania fan ber dezula ta! Fanko naiz ni lania, zu yon trankilo! Gizon bat lasaiyo! Bueno!

## BIBLIOGRAFIA

- Echaide, Ana María, 1989, *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza.
- Erdozia, Jose Luis, 2001, *Sakana erdialdeko euskara*, Nafarroako Gobernua.
- Gaminde, Iñaki, 1985, *Aditza Ipar Goi Nafarrenz*, UEU.
- Mundiñano, Iñaki, hogei orrialdetako lan argitaragabea, *Bakaikuko euskara*.
- Ondarra, Francisco, 1965, “Voces vascas de Bacaicoa”, *RSVAP*.
- Yrizar, Pedro, 1992, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional*, Euskaltzaindia.
- Zuazo, Koldo, 1995, “Burundako hizkera”, *ASJU*, xxviii, 297-364.

## LABURPENEA

Artikulu honetan, Burunda haraneko Bakaiku herriko hizkera izan dut aztergai. Burundako hizkera Euskal Herriko mendebaldeko, erdialdeko eta Nafarroako euskalkien arteko zubi-hizkeratzat badugu ere, bakaikuerak berak Burundako hizkera eta Sakana erdialdeko hizkeraren artean egiten ditu zubi lan horiek. Beraz, bi hizkera ezberdinen aurrean gaudela erakusten dute hemen aztertu ditudan ezaugarriek, baina, era berean, *continuum geolektalaren* teoria baieztatuz, kidetasunak ere begi-bistakoak direla ikus daiteke. Horrela beraz, bakaikuerak Sakana erdialdearekiko, gainerako Burundako herri-tako hizkerak baino kidetasun gehiago erakusten ditu.

## RESUMEN

En este artículo he analizado el euskara de la localidad de Bakaiku, en el valle de la Burunda. La variante burundesa es considerada como puente entre los dialectos de las zonas occidental y central de Euskal Herria y Nafarroa, y el euskara de Bakaiku hace, así mismo, de puente entre el burundés y el barranqués (zona central de Sakana). Nos encontramos, por tanto, ante dos variantes diferentes, como lo demuestra el análisis llevado a cabo en este trabajo, pero, del mismo modo, se confirma la teoría del *continuum geolektal*, al comprobarse que son varias, también, las características comunes. Así pues, el de Bakaiku presenta para con el euskara de la Barranca más afinidades que el del resto de localidades de la Burunda.

## RÉSUMÉ

Dans cet article, j'ai analysé le euskara de la localité de Bakaiku, dans la vallée de la Burunda. La variante burundaise est considérée comme un pont entre les dialectes de l'occident et le centre de Euskal Herria et Nafarroa, et le euskara de Bakaiku est né comme un pont entre le burundais et le barrançais (centre de Sakana). On se trouve, alors, devant deux variantes différentes, comme le montre l'analyse réalisée dans ce travail, mais, en même temps, on confirme la théorie du continuum géolectal, puisque l'on peut prouver qu'il existent plusieurs caractéristiques communes. Pour cela, le euskara de Bakaiku présente plus d'affinités que le reste des localités de la Burunda avec celui de la Barranca.

## ABSTRACT

This article analyses the Basque spoken in the village of Bakaiku, in the Burunda valley. The variant from Burunda is regarded as a bridge between the dialects from the west and centre of the Basque Country and Navarre. Likewise, the Basque spoken in Bakaiku bridges the gap between the variants from the Burunda and the Barranca (central area of the Sakana). As demonstrated in this study, two different variants are, therefore, present. The theory of continuum geolectal is, nevertheless, confirmed by the revelation of several features common to both. There are more similarities between the Basque from the Barranca and the Bakaiku variant than between the former and the language used in other parts of the Burunda.